

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 725. zenbakia

INGURUMENA / Kutsadura arazoa Arrasaten

Arrasatek 40 bider gaintitzen du legeak ezartzen duen kutsadura muga

UBANE MADERA

2003-2004ko kutsadura neurketek erakusten dutenez, Arrasatek askogatik gaintitzen du legearen muga. Partikula txikien lotutako kutsadura da, gizakion arnas aparatuari eragiten diotenak. Autoen joan-etorria, enpresak, harrobiak eta obrak dira eragile nagusiak.

Kezkagarria da oso Laubide plazako etxolatzkoan batutako datuek erakutsi dutena. Hala adierazi digu Udaleko Ingurumen Saileko buru Joseba Ugaldek: "Kontuan izan behar da 40 bider pasatzen dela legearen muga, eta hori ez da tontakeria. Batez ere jakinda, eta hori nik esaten dut, baina baliteke beste norbaitek beste modu baten pentsatzea, muga hori oso altua dela. Eta muga hori pasatu egiten bada eta 40 bider, gainera, arazoa oso inportantea da". Joseba Ugaldek gaineratu digu kutsadura horrek Arrasate osoan duela eragina: "Biztanle guztiak daukete afektatuta, herri guztia hartzen duela, haizeak partikulak mugitu egiten ditu-eta".

PARTIKULA TXIKIAK ARAZO

Hain zuzen ere, partikula txikiak sortutakoa da Eusko Jaurlaritzako datuek erakutsi duten kutsadura, PM 10 izenekoek eragindako kutsadura, hain justu ere: "Partikula txikiak, txikiak direnez, geratzen dira airean eta horiek tragatu egiten ditugu, arnastu, eta ondorioz, arnas aparatuan izan ditzakegu arazoak".



Herrian gertatzen den auto eta kamioien joan-etorriak eragin handia du partikula txikien emisioan.

ZERK ERAGINDA

Lau elementu dira kutsadura horren eragile nagusiak: automobil eta kamioien joan-etorria, enpresen emisioak, obrak eta harrobiak: "Gobernuaren txostenak bereziki dio arazorik handiena autoena dela, baina ezin dela alde batera utzi enpresek egiten dituzten emisioak, eta harrobienak, San Josepenak,

zehazki. Haizea hegoaldeetik dabilenean, San Josepen sortzen den hautsa herri guztira zabaltzen da". Eskoriatzatik Arrasatera arteko lantegien emisioekin ere gauza bera gertatzen dela kontatu digu Joseba Ugaldek. Halaber, kontatu digu Garagartzatik Arrasaterako errepidean sortzen diren auto-ilaren eragina ere nabarmena dela Jaurlaritzak

batutako datuetan. Eta horrekin guztiarekin batera, obretan sortzen diren hondakinak berehala batzen ez dituztenez, haien hautsa herrira zabalduta egiten da eta kutsatu egiten du.

HARTUKO DITUZTEN NEURRIAK

Gauzak horrela, ahalik eta lasterren arazoari aurre egiteko neurriak hartzea komeni dela argi

ikusten da. Horren harira, Joseba Ugaldek kontatu digu udalbatzarrek irailean osoko bilkura berezia egingo duela Arrasaterako Mugikortasun Plana onartzeko. Eta plan horri esker, besteak beste, laster bi igogailu ipiniko dituztela (Otalora kalean eta Bizkaia etorbidean) goiko auzoetara joateko eta Uribarrin hirugarren bat ipintzeko aukera aztertzen dabilzala, Erguenera igotzeko. Autobus urbanoaren zerbitzua handitu eta hobetzeko aukera aztertuko dutela ere jakinarazi digu; eta tranbia oso garrantzitsua izango dela CO2-ren emisioa txikitzeko.

Autoen joan-etorriari dagokionez, Joseba Ugaldek kontatu digu herriko enpresekin berba egingo dutela langileak eramateko autobusak-edo antolatzeko. Horren harira, esan digu Fagor, esaterako, konforme dagoela arazoa konpontzen ahalegintzeko. Horrez gainera, Ugaldek gogora ekarri digu herritarrek duten beste aukera bat dela Autoan Elkarrekin programa erabiltzea.

Obrei dagokionez, berriz, haiek sortzen duten hautsa zabal ez dadin, hondakinak-eta lehenbailehen batzea komeni dela esan digu.

Bestalde, enpresei emisioak zaintzeko eskatuko dietela ere jakinarazi digu. Eta harrobien kasuan, San Josepe laster itxiko dutela gogora ekarri digu.

Hala, Udalak gai horretan baduela ardura onartu du Ugaldek. Baina gizarteak ere ardura handia duela adierazi digu.



OBINDEGIA
GOZOTEGIA
**maala
berri**

Otalora lizentziaduna 20, behea ARRASATE
Tel.: 943 71 25 89
Zabalduta berria Uarkapen!



Maalako jaiak 2005

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

Express
KAFETEGIA

Ondo pasatu jaietan!

Maalako errabala 8.
Tel.: 943 20 00

FOTO

Enrique Martín IMAGEN FOTO

Maalako Errebala 11 • ARRASATE
Tel.: 943 77 08 62

AE ELKORO

- Elektrizitatea
- Antenak
- TB, Bideo eta Hifi konponketak

Maalako Errebala 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

MAE
Bidaiak

Ondo pasatu jaiak!

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

Casa Cecilia

MONDRAGON. — Arrabal de la Magdalena Arrasaten 1906. urtetik

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Barceló
Bidaiak

Ondo pasatu jaietan!

Maalako Errebala, 31
Tel.: 943 79 70 11

MODAYANG
Errapa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETU.

Udalatx Inmobiliaria

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE
Tel.: 943 79 59 99
E-posta: udalatx@udalatx.com
Webgunea: www.udalatx.com

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

Etxebizitza berriak salgai Arrasaten
Jai zorientsuak izan!

ARREGI

MARKOAK
ISPILUAK
MARGOLANAK
LAMINAK

Maalako Errebala 8
20500 arrasate
Tel.: 943 79 56 44

Plus Ultra
TABERNA

Maalako errabala 17.
Tel.: 943 79 20 57



Maalako jaiak
2005

UZTAILAK 22, EGUBAKOITZA

- 08:00etan: Etxafuego jaurtiketa.
- 17:00etan: Ume jolasak eta txokolate-jana.
- 19:00etan: Txikiteoa.
- 21:00etan: Afaria Errabalekoendako.
- 22:30ean: Musika eta dantza.

UZTAILAK 24, DOMEKA

- 12:30etan: San Frantzisko elizan meza, Maalako Errabalean hil diren guztien oroimenez.
- 13:00etan: Kaleko erretiratuendako luntxa Plus Ultra taberna.





Argazkian ikusten duzuen antena hori dela-eta aurkeztu dute kezka Santa Marinako bizilagunek.

INGURUMENA/ Telefonía mugikorrek antenak ezbaian

Telefono antena batekin lotutako kezka azaldu dute

UBANE MADERA

Santa Marina kalearen 24 zenbakiko etxean dagoen antena dela-eta aurkeztu dute kezka. Ia 200 bizilagunek sinatu dute kezka hori. Kontua da, antena haren potentzia handitzea nahi dutela-eta, Euskaltekin duten kontratua eten gura dutela bizilagunek.

Kezka eta eskaera bat baino gehiago egin dituzte Santa Marinako bizilagunek telefonía mugikorrek Euskaltelen antena hori dela-eta. Haien esanetan, antena hura Santa Marina kaleko 24. zenbakiaren teilatuan ipini zutenetik, 1999tik, zenbait osasun-arazo izan dituzte: buruko minak, insomnioa, estresa, nerbioak... Eta auzoko bi umek (Santa Marina kaleko 18 eta 22 atarrietakoak) azalean argitu ezinezko arazo larria izan dute, eta batek oraindik ere gaitxo segitzen du.

ANTENAK ERAGINDAKO ARAZOAK

Santa Marinako bizilagunek uste dute telefonía mugikorrek antena haren emisio radioelektrikoek eraginda dituztela osasun arazo horiek. Eta emisio horiek aztertze eskaerak egin dizkiote Udalarari (hiru, guttira), azkena ia 200 bizilagunek sinatuta. Hori dela-eta, Udalak behin baino gehiagotan eskatu du emisio horien gaineko infor-

mazioa. Eta orain arteko eskaeren emaitzak negatiboak izan dira.

LEGEAREN ARABERAKO EMAITZAK

Hain zuzen ere, ekainaren 7an jaso zuen Udalak azken txostena, Madrilgo Industria, Turismo eta Komertzio Ministeriotik. Haren arabera, "Ziurtatu daiteke emisioen murrizketen araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela; baita osasuna babesteko neurriak ere. Izan ere, neurtutako nibelak gizakiak jasan ditzakeen esposizio nibelen limiteen behetik daude".

Santa Marinako zenbait bizilagunek diote osasun arazoak eragiten dizkiela antenak

Udalaren laguntzarekin ez badute ezer lortzen, epaitegietara jo beharko dute

POTENTZIA HANDITU GURAN

Orain, piztu berri den ika-mikaren arazoia da Euskaltekin antena haren potentzia handitu egin gura duela, eta horren aurrean, zenbait bizilagunek Udalara jo dute hori ez gertatzeko zer egin daitekeen ikustera. Besteak beste, Euskaltekin sinatutako kontratua eteteko aukerak aztertzen dabilta. 25 urterako kontratua dute Santa Marinakoek.

25 URTERAKO KONTRATUA

Besteak beste, Ingurumen Saileko Joseba Ugalde dabil gai hori lantzen eta hark zera adierazi digu: "Kontratua aztertu dugu eta egia esan, enpresaren aldekoa da. Baina horrek ez du esan nahi aldaketa nahi duten moduan egin dezaketetik. Nik uste dut aldaketa hori egiteko, Udalean lizentzia eskatu beharko dutela". Halaber, gaineratutakoaren arabera, Ugalderekin ustetan, Udalean lizentzia eskatuz gero, egokiena izango litzateke antena hura Kurtze Txikin ipintzeko agindua ematea Udalak Euskalteli. Izan ere, Santa Marinako antena ipini zutenean, 1999an, halakoak herri barruan ipintzea posible zen. Orain, berriz, legeak dio herritik kanpo izan behar direla. Arrasatekoak, Kurtze Txikin ipinita daude.

Eta Udalarari esker ezer lortzen ez badute, Santa Marinako epaitegietara jo beharko dute.

Gaur eta domekan, Maalan jai; datorren astean, Ferreriasen

U.M.

Gaur, barikua, eta etzi, domeka, ospatuko dituzte jaiak Maalan. Besteak beste, afora egingo dute gaur, 21:00etan eta domekan, meza. Uztailaren 26an, berriz, Ferreriasen jaien txanda izango da.

Goizean goiz iragarriko dituzte Maalako jaiak etxafuegoekin, baina ekitaldiak 16:00etan hasiko dira; ume-jolasak eta txokolatada izango dira orduan. Gero, 19:00etan txikiteoa egingo dute, 21:00etan afora eta 22:30ean dantzalditxoak. Bukatzeko, 23:00etan suzko errubak izango dituzte.

Domekan, berriz, 12:30ean meza esango dute San Frantzisko elizan, hil diren auzotar guztien alde. Eta horren ostean, Errabaleko erretiratu guztiendako

luncha emango dute, Plus-Ultra tabernan.

FERRERIAS, DATORREN ASTEAN

Uztailaren 26an, berriz, Ferreriasen auzotarren txanda da. Martitzenean, 12:00etan txistulariek kalejira egingo dute, 17:00etan umeendako jolasak izango dira eta 17:30ean, txokolatada. 19:00etan ostera ere aterako dira txistulariak, eta ordu berean, meza esango dute parrokan, hildako auzotarren alde. 21:00etan, berriz, afora egingo dute, kalean. Eta 22:30ean hasita, musika saioa izango da. Horrez gainera, eta aurrean lehen aldiz, gaztetxeak antolatuta ohi duen kubatar festa Lagunilla tabernara ekarriko dute. 18:00etan hasiko da jaiak. Besteak beste, karoakea, linbo dantza, "kroketa lehiketa" eta mojito bilketa olinpikoa egingo dituzte.

LABUR

Azaroaren amaieran bukatuko dituzte Azoka eta Mondragones kaleetako lan guztiak

Onespina eman dio Gobernu Batzarrak Azoka eta Mondragones kaleen lanen proiektu aldatuari. Haren arabera, 347.000 euro baino gehiago inbertituko dituzte lan horiek egiten. Besteak beste, lurpeko bost edukiontzi ipini dituzte Seberren parean; Otalorako espaloi zati bateko oztopoak kentzen dabilta eta oro har, inguru guztia urbanizatzen dabilta. Azaroaren 30era arteko epea dute.

Deba ibaia birpopulatzeko zein aukera dagoen aztertuko dute, baldintzak egokiak direnean

Udalak jakinarazi digunez, asmoa du Deba ibaian birpopulatzeko dauden aukerak aztertze. Edozelan ere, gogora ekarri digute orain Deba ibaiko puntu askotan obrak egiten dabilzala, eta horren ondorioz, uren kalitatea ez dela batere egokia birpopulatzeko. Hori dela eta, argitu digute birpopulatzeari lotutako ezer ez dutela egingo harik eta ibaiko uren kalitatea egokia izan arte.

Miloi bat euro baino gehiago ordainduko du Udalak Zerkaosteta kaleko lokala erosteko

1.196.014 euro. Horixe da Udalak ordainduko duen diru kopurua Kutzak Portaloian zuen lokala erosteko. Ordainketa bi etapetan egingo dute: hasieran, kontratua sinatzean ia 240.000 euro ordaindu beharko ditu; eta gainerakoa 2005eko urrian ordainduko dute, hau da, ia 957.000 euro. Udalak herritarrendako arreta zerbitzua ipini gura du lokal horretan.

Sutea gertatu zen Santa Marinako lokal batean, domeka goizaldean

Auzoa jaietan zegoela gertatu zen sua Santa Marina auzoan. Hain justu ere, bederatzigarren zenbakian piztu zen. Suhiltzaileek emandako datuen arabera, domekan, 02:38an jaso zuten abisua eta hiru kamioi etorri ziren. Kontatu digutenez, laster lortu zuten sua emendatzea eta kalte materialak bakarrik gertatu ziren gela batean. Ez dakite zerk eraginda piztu zen sua.

Laster hasiko dira Laubide aparkalekuan egokitzapen lanak egiten

Biteri aparkalekuan lanean dabilen enpresa berak egingo ditu lanak. Construcciones Bikani enpresak. Besteak beste, igogailua ipini-ko dute eta dauden eskailerak handitu egingo dituzte. Obrak otsailera bukatuko dituztela aurreikusitako dute.

KALEINKESTA/ Itxurie, azkenaldixen oporretara ez gare horren urrin jueten.



PILI GARRO
Langillie




OLATZ ETXABE
Langillie




MARIO HERNANDEZ
Langillie



NAROA JIMENEZ
Iksalze



EKAITZ MENOR
Langillie



ROMAN KORTABARRIA
Langillie

Neuk pentsetan dot inportantiaue dala kanpokue baiño, hamengue ezaguketie. Familixako batzuk etorri die Dominikar Errepublikatik, eta kriston txaskue hartu dauela esan daue.

Ba neuk gurau dot urrin juen, egixe esateko. Europa ezaguketan dou, eta kanpora jueten bagare beste kultura eta bizimodu batzuk ezaguketako aukerie eukitten dou.

Bilddurragaittik izengo dala uste dot. Lehenau alde haundixe euen hamen geratu edo kanpora juetien artien, baiñe oin... Neu Fuerteventura inguruen ibilliko naz.

Nik nahixau dot hamen geratu, inguruek ezaguketako. Akaso, jentiek honezkeru ikusi dau kanpuen ze dauen, eta gurau dau hamen geratu. Bilddurragaittik be izen leike.

Neuk uste dot ekonomia gaittik dala. Gauza bat dala, bestie dala, gastu mordue eukitten dou, eta akaso, gurau dou hamen geratu. Gaiñera, neuk gurau dot agostuen lan egin.

Gu geu Marruekosera goiez, hortan... Nik nahixau dot kanpora juen, hamengue ikusitte dauketelako. Europako kulturie antzerakue da, baiñe Afrikakue oso diferentie da.

USTEAKUSTE

TXALOAKETATXISTUAK

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta

Oporrak

Estresatuta bizi gara. Gehienak bai, behintzat. Eta stres horren ondorioz eta eraginez, horren garrantzitsuak izaten diren gauzetako asko ezin izaten ditugu behar bezala egin: lagunekin nahi beste ordu pasatu, familia bisitatze-ko asti nahikoa hartu, seme-alabekin ibili, egunerokoan pentsatu... edo, zergatik ez, beste ezer egin barik gora begira egon, trankil-trankil.


Guri, Arrasate Presskooi, oraintxe iritsi zaigu opor sasoi. Zuek bezala, geu ere egun horiek ahalik eta ondoen aprobetxatzen ahaleginduko gara. Ez dago zertan kanpora joan horretarako. Lehen esandakoak egitea nahikoa da. Kontua da indarberrituta eta burua eta nerbioak lasai ditugula bueltatzea egunerokora.

Eta, jakina, garrantzitsuena da oporetatik osorik bueltatzea.

Beraz, kontuz ibili leku guztietan, astiro automobilarekin; eta errespetuz jokatu bisitatuko dituzuen lekuekin eta hango bizilagunekin. Baina, batez ere, ondo ibili.

Eta bueltan zatoztenerako geu hementxe izango gaitzue lanean, irailaren lehenengo egubakoitzean zeuen etxeetara Arrasate Pressko beste ale bat iritsi dakizuen.

Bejondeizuela!



TXALOAK ZULOAK GARAGARTZAN Garagartza auzora sartzeko bidegurutzean zulo nahiko handiak egon dira orain arte. Aramaio-tik datorren bideko aldats beheraren ostean zeuden zuloak, eta arriskutsuak ziren. Izan ere, batez ere eguraldi onarekin txirrindulari asko jaisten dira bertatik abiadura bizian, eta zulo horiek traba handia ziren baita autoendako ere. Berriki konpondu dute bihurguneko zati hori, eta orain askoz ere hobeto dago bertatik pasatzeko. Txirrindulariek, behintzat, eskertuko dute.

ASTEKODATUA

1.196.000

EURO PASATXO, BULEGO BATENGATIK

Zenbateko hori da Kutxak Zerkaosteta kalean zuen bulego-erengatik Udalak ordainduko duena. Herritarrenganako zerbitzua deszentralizatu egin gura dute, eta horregatik bulegoa Udaltxean ez den beste leku baten ipiniko dute: Zerkaostetan.



Matthieu

Matthieu da gizon patxadatsua, gizon ona. Postaria da ogibidez joan deneko berrogei urtean bai. Siestatik jaiki, uniforme jantzi, garajetik motozikleta atera eta astiro-astiro abiatu da, uztailleko aire beroa. aurpegian, posta banaketa egitera. Kantari doa Matthieu zaharra, *ou l'amour sera loi, ou l'amour seras reine, ne me quitte pas, ne me quitte pas...*

Han atzean txirrindulari bat ikusi du erretrobisoretetik, pedalei jo eta sua. Gero, ziklista andana lehenari jarraika, errepidea bete-betean datoz, ziztu bizian. Matthieu zaharra azeleratzen hasi da, baina hala ere samur jarri zaio aurreneko txirrindularia gurpilean, tipoaren arnasestua ere entzuteko moduan. Hauxe beltza. Matthieu zaharra orduan, larri, errepide nagusia utzi eta baserri-bide estuan aurrera sartu da, paretik apartatzeko. Koitadua. Denak atzetik joan

zaizkio, motozikletaren babesera ziklistak. Matthieu gizon patxadatsua izango da, ona, baina txepela ez. Kabenzotz! Jarri du hanka lurrean eta zibarena egiten ez da ba hasi, hango kea eta goma erre usaina, *easy rider*. Txirrindulariak seko geratu dira, elkarrri begira daude orain, asko lotsatuta ere bai. Barkamena eskatu diote. Orduan norbaitek parean dagoen tabernara joateko proposamena bota du eta han joan dira denak bizikletak belartzan utzita, paitak lez zapata aldrebes horiek oinetan, baina umore onean.

Armstrong-ek tekila eskatu du, Menchov-ek, vodka. Ullrich-ek estropezu egin eta komuneko leihoa apurtu du buruaz. Hau da gazteria, pentsatu du *beaujolais* basoa eskuan Matthieu zaharrak. Ez daki ondo gizajoak erronda nork ordaindu beharko duen, inork ikusi al du sekula ziklistarik kartera aldean eta? Kabroiak.

"Uniformea jantzi, garajetik motozikleta atera eta astiro-astiro abiatu da"

Arrasate Press
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Ubane Madera
ERREDAKZIOA
Jon Berezibar
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila Gipuzkoako Foru Aldundia Arrasateko Udala Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
Irizar, Eguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 9**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 10**
Español, Araba etor. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 11**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 12**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 13**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 14**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 15**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- San Juan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 (elebiduna)
19:00 (elebiduna)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna)

OHARRAK

AHT-REN AURKAKO KANPALDIA
Arrasateko AHTren aurkako taldeak Alegian egingo den kanpaldian parte hartzera animatzeko deialdia egin du. Hala, gaur hasi eta datorren asteburu-ra arte iraungo dute ekintzek: hitzaldiak, musika, antzerkia.. Denetarik izango da.

ZINEMA MONTEIRONEN
Gaur eta datorren egubakoitzean hil honetako azken bi filmak emango dituzte Monterronen: *Millones* eta *Bodas y prejuicios*.

MARGOLANEN ERAKUSKETA
Hil honen amaierara arte, Jose Ramon Elortza elgoibartarrak margolanen erakusketa jarri du Arregi galerian (Maala kalea). Abstrakzioak landu ditu, eta oso geometriko eta koloretsuak dira lanak.

ODOLA EMATEA
Datorren astean hasi eta abuztuaren 4ra bitartean odola emateko autobusa ipiniko dute San Andres auzoko Fagor lantegiaren parean.

DJ NORGEHIAGOKA
Hamaika DJ aurrez aurre egongo dira oraingo zapatuan 3.60 aretoan. 23:00etan hasiko da saioa eta sarrera doan izango da.

AEDrenAGENDA

OPORRAK GERO ETA GERTUAGO
Joan den asteko Morau ta Agotak taldearen kontzertuarekin amaitu dituzte AEDkoek udako emanaldiak. Irailean jarraituko dute ekintzekin.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Eguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Eguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Eguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Eguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Alkateari zentsura mozioa aurkeztekotan

Uztailaren lehen hamabostaldian adierazi zuten EAJ, PSE-EE eta EA alderdiek, baina oraindik ez zuten Udalera moziorik eraman. Hori zela-eta, erdi geldia eta funtzionatzeko zailtasunekin ibili zen Udala. Bitartean, Xabier Zubizarreta alkateak zegozkion ardurekin jarraitu zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Patxaroso”



Patxara onekoa.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 13	11°C
MAXIMOA Eguena, 14	39°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	33°C	11°C	- l/m²
Eguena, 14	39°C	12°C	- l/m²
Egubakoitza, 15	32°C	19°C	0,1 l/m²
Zapatua, 16	29°C	19°C	- l/m²
Domeka, 17	28°C	15°C	1,1 l/m²
Astelehena, 18	25°C	15°C	- l/m²
Martitzena, 19	26°C	15°C	- l/m²

Bargarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7

GURE IRRATIA
717. Kurara, Keike, Nuvuk-at, Potemkin, Brigada kriminal, Stupenda Jones, Izate, Leifolikan, Captain Nemo, Sharon Stoner, Sorkun, SixtySexers, Skunk, Dirtyes, Izaera, T.L.T., Neubat, Hus, Ozke, Fjord, Surfín kaos.
ZURE ROKANROLA

‘Gaur irrattia-zure rockanrola’ diskoaren aurkezpena Asteko Gainbegiratuan

Iparraldeko Gure Irratia 1981. urtean sortu zen; garai hartan euskara hutsean emititzen zuen irrati bakarra zela gogorarazi digu astean Mikel Etxebarriak, Baionan kokatuta dagoen Gure Irratiko esatariak. Hastapen garaietatik hona, gorpuztuz joan da irrattia, eta laster, Uztaritzen estreinatuko du egoitza berria. Horretarako, baina, 185.000 euro behar dituzte. Dirutza hori lortzeko, hainbat bide aztertu dituzte, horien artean, Euskal Herriko 22 musika talderen laguntzarekin argitaratu berri duten dis-

ko. Disko horretan, ibarreko hainbat talde ere aurkituko ditugu. Asteburuko hitzorduan izango duzue aurreratutako kontu horiek berriro entzuteko aukera. Bestalde, oraingo astean amaitu ditugu 107.7ko zuzeneko saioak. Dena dela, herriko irrattia beti izango duzu konpainia egiten; uztaila amaitu bitartean, azken hilabeteetako elkarriketekin osatutako bildumak entzungo dituzue goizero, 10:00etan hasita. Abuzturako, berri, musika paregabeaz gozatzeko aukera izango duzue, orduoro!



ARRASATE IRRATIA

ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratura**. Gure irrattia-zure rokanrola diskoa; Izaro Agirre, Mojategi proiektuaren gainean; lorategia tartean geranioak berbagai; Anton Azpiazu; Klaxk elkarteak kidea; Ruper Ordorika Kuban...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratura**.

UZTAILAREN 25-31
10:00 **Elkarrizketa bilduma**.

ABUZTUAREN 28RA ARTE
Musika lagun eta 8:00etan eta 13:00etan Euskadiko Irratiko albistegiak

ABUZTUAREN 29TIK AURRERA
10:00-12:00 **UDA GIROAN** Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Garaio, Donostiako Aquarium eta Musakolako igerilekuarekin konektatuta.
Lorak eta landareak.
Bidaiak.
Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).
12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.
12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
13:00 **Euskadi Irratiko albistegia**.
14:00 **UDA GIROAN (errep.)**
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.

Jose Angel Lopez hamaikagarrena izan da Espainiako Txapelketan

XABIER URTZELAI

Joan den asteburuan egin zuten Vilaboan (Pontevedra) Espainiako Mendiko Bizikleta-ko Txapelketa, eta veterano mailan, Jose Angel Lopez hamaikagarrena helmugaratu zen. Marka txukuna bada ere, Arrasatekoa ez da oso gustura itzuli.

Euskadiko Opena irabazi berri, Jose Angel Galizian izan zen joan den asteburuan, Espainiako Txapelketan. Jartzen duen aurpegiagatik, ez da oso gustura itzuli, nahiz eta asteak aurrera egin duen neurrian, beste ikuspegi bat izan: "Lasterketa gogorra izan zen, oso gogorra, eta ez nintzen oso gustura ibili. Zazpigarren postutik hamaikagarrenera artekoak metro gutxiren aldearekin helmugaratu ginen, baina metro horiek aurreratzeko behar den sasoi puntua falta nuen".

Lasterketa aurretik ordu mordo egin zituen automobilean: "Dendan lan askorekin gabiltza, eta ezin nuen lehenago irten. 04:00etan jaiki, guztia prestatu, eta Galizia aldera abiatu ginen. Hara iritsitakoan, luzapen ariketa batzuk egin, eta lasterketara. Buruan daukadana da, atsedean hartuta joan izan banintz, akaso, aurrerago helmugaratuko nintzatekeela; orain, baina, horrek ez dauka bueltarik".

JAITSIERA ARRISKUTSUA

Arrasatekoak proba baino lehenago zirkuitua ezagutzeko aukera ere ez zuen izan: "Seigarren postuan amaitu zuen Euskadiko beste ordezkari batek, Ramon Lekuonak, esan zidan ez zela komeni zirkuitua ezagutu barik proba hastea, eta gutxienez, jai-tsiera arriskutsuena ikusi egin behar nuela. Hara joan, eta jai-tsierako lehenengo metroak ez zitzaizkidan horren gogorrak iruditu. Halako batean, baina, sekulako malda ikusi nuen, oso estua eta desnibel handikoa".

Aurreko egunetan entrenamendu saioak egiten ibili ziren, eta hainbat istripu izan ziren jai-tsiera horretan: "Esan zidatenez, Euskadiko Selekzioko kadete mailako batek eskua hautsi zuen,



Jose Angel Lopez helmuga gurutzatzen, Vilaboan.

JOSE ANGEL LOPEZ

"Zirkuituan ez zegoen errekuperatzeko zonarrik, horregatik zen gogorra"

eta beste batek ere saihestetan kolpe gogorra hartu zuen. Hori ez zen, baina, larriena izan. Beste lasterkari bat modu txarrean erori, eta bizkar hezurra hartu zuen kolpea. Hankak mugitu ezinda geratu zen, baina badirudi bizkar hezur inguruan izandako handituaren eraginez izan zela, gero hasi zen-eta poliki-poliki errekuperatzen; azkenean ez zen horren larria izan".

Bistan da ez zela txantxeta-

ko zirkuitua: "Hauts asko zegoen, hauts beltza. Lasterketa amaitutakoan, bazirudien batek daki non ibili ginela lanean. Horrez gain, zirkuituak ez zuen atsedean hartzeko edo errekuperatzeko zonarrik, guztia zen malda gora edo malda behera, horregatik zen gogorra".

ATSEDEAN BARIK

Datozen hilabeteotarako dituen asmoen berri galdetu diogu Jose Angel Lopez: "Egia esan, ez daukat geldia egoteko asmorik. Irailan proba politak egoten dira Errioxa aldean, eta gero Pirinio aldera egiten dut. Horrekin batera, azaroa inguruan Nafarroan ere proba ederrak egoten dira".

Eta Arrasatekoak dagoeneko buruan izango du Euskadiko Openeko Master 40 kategorian lortu berri duen txapela defendatzea, seguru.

LABUR

Arrasateko lau atleta izango dira veteranoen Munduko Atletismo Txapelketan, Donostian

Abuztuaren 22tik irailaren 3ra arte egingo dute Donostian veteranoen Munduko Atletismo Txapelketa, eta Arrasateko lau ordezkari izango ditu. Mari Fran Alonsok esku hartuko du 1.500 metroko lasterketan, eta baita zortzi kilometroko krosean ere. Maria Jesus Velasco eta Maria Jesus Gil lehiatuko dira 1.500 eta 5.000 metroko probetan, eta Cesar Diezek, gizonezko bakarra, maratonia izango du helburu.

Lazkanok hiru norgehiagoka izango ditu asteburuan, Leonen eta Segovian

Aitzol Lazkano bihar arratsaldean abiatuko da Leon aldera: "Arratsaldeko lehenengo orduan irtengo gara, apur bat freskatu arte ezingo gara-eta pilotan jokatzeko hasi". Arrasateko pilotariarekin batera, Ordagoko beste zazpi pilotari joango dira zapatuan, domekan eta astelehenean egingo dituzten jaialdietan esku hartzera.



Mikel Gonzalezek, Realarekin debuta

Arrasateko atzelaria Realarekin dabil aurre-denboraldia egingen, Korean, eta Sundows taldearen kontra tokatu zitzaion debuta egitea, lehenengo norgehiagokan. Badu pozik egoteko motiboa, nahiz eta norgehiagoka galtzeak zapora gazi-gozoa utzi. Sekulako jauzia egin du Mikel Gonzalezek. Orain dela gutxira arte Realak preferente mailan izan duen kategorian zebilen, eta Sansera igo zuten gero. Eta orain egin du debuta lehenengo taldearekin. Sanseko jokalaria dela jakin arren, ezin hobeto hasi du Arrasatekoak denboraldi berria. /X.U.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82


arbolapeta



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



GP PRODUCCIONES

Kritika bikainak jasota, euren lehen kontzertua 3.60 aretoan egingo dute.

Chico Boom-en estreinaldi kontzertua gaur gauean

JON BEREZIBAR

Azken boladan zeresan handia piztu duen rock taldearen estreinaldia izango da 3.60 aretokoa. Señor No eta Surfin Kaos-en ibilitakoek horrenbeste gorespen merezi dituzten frogatu beharko dute.

Oraindik iraupen luzeko disko-rik argitaratzeko, jarraitzaile andana batu du dagoeneko Donostiako taldeak. Ez da gutxiagorako, gainera. Laukotea sortu berria bada ere, talde aski ezagunetako kideek osatzen dute Chico Boom. Hain zuzen ere, Señor No, Surfin Kaos eta Small Things taldeen esperientzia luze eta diskografia zabalaren bermea daukate mutil horiek.

Kritika espezializatuak ez du laudoriorik aurreztu atera duten single bakarraren inguruan (*Birth 7'*), eta hori gutxi balitz jendearen erantzuna ez da makala izan, aleak disko dendetako apaletatik desagertzen hasita dade-eta.

Hori guztia kontuan hartuta, gaur kontzertu handia espero da 3.60 aretoan. Besteak beste, rock "zurrun eta leuna" edota "erre-

soluzio handikoa" moduko berba handiak irakurri ahal izan dira aldizkarietan.

SEÑOR NO

Donostiako talde horren hamar urteko emaitza aberatsaren lekukoa jaso dute Imanol gitarra jolearen eskutik. Ibilbide luzearen agiria dira Imanolek taldearekin grabatutako dozena erdi disko. Orain, Señor No taldean erakutsitakoak Chico Boom proiektu berrian berretsi beharko dituzte gaitzako taldekideekin batera.

Uneotan lehen lana prestatzen dabilta eta abesti berriotako asko emango dituzte ezagutzera gaur gauekoan. Horietatik, jada ezagun bihurtu dira *I don't wanna please you* eta *Getting back* kantuak, aipatutako singlea osatzen dutenak.

Señor No eta Surfin Kaos taldeetako kideek osatzen dute Chicos Boom proiektua

Zahar Berri programak aurrera egitea lortu du aurten

JON BEREZIBAR

Euskaldun berriei euskaraz bizitzeko aukerak emateko lanean jarraitu du aurten ere AED elkarteak. Zahar Berri egitasmoak bideratzen du hori, eta urteko balorazioa egin du Ibai Redondo teknikariak.

Euskaldun berri asko euskaltegian hasi arren, zailtasunak dituzte euren inguruan euskaraz jarduteko. Horri erantzuteko, hizketarako taldeak egin zituzten. Proiektu guztiek martxa onean jarraitu dutela dio Ibai Redondok, talde askok euren kabuz funtzionatzea lortu dute-eta.

Horren adibide dira berba taldekoak. Behin programaren bitartez taldeak eginda, euren kabuz hasi dira dagoeneko zinerira, mendira eta sagardotegira irteerak antolatzen. Interesa izatekotan AEDra bertara jo besterik ez dute animatzen direnek.

Berba-lagun izeneko taldean ere pozik daude izandako erantzunarekin. Hirukoteka egin dituzte taldeak eta dozena bat lagunek eman du izena. Hemen ere ahalik eta jende gehien batzea da helburua. Azkenik, hirugarren egitasmoan, hau da, Euskaltegiekin batera antolatutakoetan, "ederto" pasatu dute.

UDALAK DIRU GUTXI

Aurtengo emaitza bikainak, baina, Udalarekin eta dirulaguntzekin izandako arazoek ilundu dituzte, Ibai Redondok azaldutakoaren arabera. Bi urtean laguntzak %40 jaitsi dizkie Udalak, eta horrela jarraituta "etorkizun beltza" iragartzen dute elkarteak. Uneotan Udalarekin hitz egiten dabilta. Aipatzekoa da euskara teknikari bila dabiltzala datorren ikasturtean lanean hasteko. Interesatuak curriculumak bidali edo elkartearekin harremanetan jartzeko eskatzen dute.



Des-Kontrol taldeak, AEBetan bira

Punk laukoteak Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldean zehar bira berezia egingo du. Euskal Herrian azken kontzertua datorren zapatuan egingo dute eta jarraitzaileei agur esan eta gero Kalifornia aldera abiatuko dira. Abuztuko bigarren astean egingo dituzte emanaldiak eta San Frantzisko edota Santa Cruzen joko dute, besteak beste. //J.B.

LABUR

Euskal antzerkia eta Polinesiar dantzak hile amaieran

Datorren egueneko ekitaldiekin amaituko dira uztailean zehar Udalak Monterron parkean eskaini dituen dantza eta musika emanaldiak. Tyva errepublikako Sayani dantza taldea etorriko da oraingoan Futuna artxipielaigoko Malae eta Lupe taldeekin batera. Polinesiar folklorea gertuagotik ezagutzeko aukera hau 22:30etatik aurrera izango da. Halaber, herriko plazan hilaren 30ean Markeliñe antzerki taldearen *Carbon Club* antzezlanaren egongo da.

Azken kontzertua egingo du Fjordek datorren barikuan

Datorren egubakoitzean, hilaren 29an, Fjord taldeak azken kontzertua joko duela iragarri dute. Amaierako kontzertu berezi hori 3.60 aretoan izango da 23:00etan.

Ia hiru urteko ibilbidearen ostean banantzea erabaki dute taldekoek. Juan Corralek, Ekoneko abeslari ohiak, Etsaiak taldean jotako Mikel eta Keuk eta Su ta Garreko Ibanek osatzen dute taldea. Disko bakarra daukate, 2004an taldearen izen berarekin argitaratutakoa. Oihartzunik handiena, hortaz, iaz izan zuten diskoaren argitalpenarekin. Egubakoitzeko kontzertuarekin agur esango du taldeak.

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

DIRULAGUNTZAK/ Elkarteentzako dirulaguntzak onartu ditu Udalak


Erretiratuen elkarteendako 55.560 euro dirulaguntzetan

JON BEREZIBAR

Erretiratuen elkarteek jasoko dituzten dirulaguntzak erabaki berri ditu Udalak. Iaz baino diru gehiago bideratu du erretiratuen elkarteendako, eta dagoeneko eginga dago ordainketaren lehen zatia.

Azkeneko Tokiko Gobernu Batzarrean erabaki zituzten Gizarte Sustapeneko batzordean erretiratuen elkartei bideratuko zaizkien dirulaguntzak. Hain zuzen ere, dirulaguntzen banaketan, erretiratuen dako izango da kopuru handiena. Iaz ere, guztira 55.560 eurokoa izango da euren aurrekontuaren partida.

Bi zatitan banatzen dira kontu-sailak: alde batetik, mantentze-lan gastuak hartzen dira kontuan eta bestetik, elkarteek antolatzen dituzten ekintzak orotara. Lehenengo zati hori zehaztu ahal izateko elkarteak dituen bazkide kopurua hartzen da aintzakotzat eta bigarren sailerako, antolatu ohi



Abaroa elkarteak 35.824 euro jasoko ditu guztira.

dituzten ekintza eta irteerak, aurrez prestatutako plangintza baten aurkeztu beharrekoak.

Honako hauek lirerateko kopuruak: Abaroari 35.824 euro, Toki Argikoei 10.023, Musakolara

10.624 eta Uribarrikora 9.086 euro. Ordainketaren lehen zatia dagoeneko egin du Udalak eta hurrengo biak urriaren eta abenduaren lehen egunetan egingo ditu hurrenez hurren.

Beroaren aurka, informazioa

J.B.

Beroaldietan haur eta zaharrek izaten dira arrisku-talderik handiena. Azken egun hauetako eta, batez ere, joan den asteo tenperatura beroek gehiago eragiten badiete ere, ez da kasu berezirik egon.

Anbulatorioan, behintzat, ez dute beroa dela-eta inor atenditu. Aurreko urteotako beroaldietan kasurik egon bada ere, ematen

zaizkien gomendioak jarraitzen dituzte zaharrek, eta zorabio arinez gain, larrialdirik ez ei da egoten. Anbulatorioko arduradunen arabera, informazio nahikoa daukate edadetuek eta badakite beroari zelan egin aurre; horregatik ez dute beroaldietarako zerbitzu berezirik abiatu. Iturbide egotzan ere iritzi berekoak dira eta gutxi izaten dira tenperatura altuek sortutako arazoak. Jarraitbideak argi ditu Monika Arriaran begiraleak: ur asko edaten

eman, nahiz eta egarririk ez izan, haizagailuak erabili eta arropa arina jantzi. Begiralearen uste-tan, gainera, nahiz eta bakar batzuk kexatu, zaharren bizi-kalitatea ez da kaltetzen egun horietan, bizitza nahiko lasaia daramate-eta. Gainera, informazio nahikoa daukatela diote arduradunek. Bestelako kasuetan, hau da, egarria edo ondoeza adierazi ezin dutenean, arreta berezia jarri ohi diete erizainek, baina, orokorrean, ez da larrialdirik egoten.

LABUR

Abaroa elkarteak Bartzelonara bidaiantolatu du datorren irailerako

Datorren irailaren 10etik 24ra Bartzelonara bidaiantolatu dabil Abaroa elkarteak. Santa Susana eta Malgrat inguruak eza-gutuko dituzte, eta 325 euro da prezioa, zerga eta BEZ barne. Plazak bete artean egongo da zabalik izenematea. Hiru izardun hotel baten egingo dituzte gauak, pentsio osoko erregimenean. Autobuseko jarlekuak, berriz, izenak emandako ordenaren arabera banatuko dituzte.

Izenematea eskaintako leku guztiak bete arte egongo da zabalik, esan bezala. Bidaiaren xehetasunei dagokienez, autobusa Arrasatek irtengo da eta bidaiaren egin behar dituzten egunetako janaria ere sartzeko da eskaintzaren barruan. Guztira, 14 gau egingo dituzte, bazkarietako ura eta ardoa barne. Gelak bikoitzak izango dira eta egunero izango dituzte dantzaldia eta animazioa. Segurua, ostera, bidaiaren barruan sartzeko da, berehalako asistentziarekin. Horrez gainera, txangoak egiteko aukera ere egongo da, baina aparte pagatu beharrekoak izango dira plangintzatik kanpoko ekintza guztiak.



Omenaldia eta jai giroa Santa Marinaran

Jai giro bikainean ospatu zituzten Santa Marinarako erretiratuek euren eguna. Zapatuan egin zuten bazkaria, Mesedeetako Ama ikastetxeko elizan meza entzun eta gero. Guztira 230 erretiratu joan ziren bazkarira eta horien artean egon ziren Manuel Gartzia eta Ursula Aspe, aurtien omendu dituzten aitaita-amamak. Dantzaldia eginda amaitu zuten eguna/J.B.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

BOTEPRONTUEN

Jaione Laskurain

MAALA BERRI OKINDEGIA

XABIER URTZELAI

Jaionendako barrixe da lanbidie, baiñe bere amak ondo daki ze dan okindegixen lan egittie, Maalan egon dalako hainbat urtien. Maala zerraute, Uarkapen zabaldu daue izen bera daukon okindegixe; juen dan astien inaugurau euen.

Okindegi barrixe ipiñi dozue.

Bai. Amak Maalan egitten euen lan, eta hango jabiek erretirau egin dienez, geuk zabaldu dou okindegie barrixe.

Eta ze moduz?

Ondo, baiñe lana apur bat gogorra da, eta ondiokan ohittu barik nau. Neuretako dana da barrixe; ikesten nabil.

Okindegixe barrixe, eta ogixek, lehenguek?

Ez, ez dauko zerikusirik. Maala zaharreko ogixek 80 urte euen laba baten egitten euen, eta oin ez da holakorik ibiltten. Oin, laba barrixekin egitten da lan. Gerueo eta leku gutxieutan topauko dozu lehengo Maalako moduko ogixek. Gustuen araberrakue da, baiñe egixe da jente asko jueten zala Maalako ogixek erostera.

Maala Barri dauko okindegixe izena, baiñe ez dau Maalan.

Ez, Uarkapen gauz. Ahaleginddu gitzen Maalatik ahalik eta gertuen topetan lokala, eta gertu gauz. Izen horrekin lehengo Maala zana mantenidu gure izen dou, nahiz eta okindegie diferentie izen.

Ze alde dau lehengo okindegixen eta oinguen artien?

Batetik, ogixe egitteko modue diferentie da, eta baitte ogixe bera be. Aman familixakuek okiñak die, eta Orixotik ekarten duskue ogixendako masie, pastelak, pastak... Lehengo Maalan ez euen holakorik.

Zein da ogi ona egitteko sekretue?

Hasibarrixe naz, eta ez nau sekretuek emuten hasteko moduen, baiñe esango neuke laban dauela sekretue. Lehengo laba zaharrak gerueu eta leku



X.U.

“Lehengo Maalako ogixek 80 urte euen laba baten egitten euen; oin ez dau holakorik”

gutxiautan dauz.

Hamen saltziez gain, ogixe banatu be egitten dozue?

Taberna batzuetara erueten dou geure ogixe.

Goixien goix jaikittiek eukiko dau bere bentajak.

Ondiokan ez dutzet bat bera be ikusi. Ohiketaz nazenien, baiñe, eukiko dau. Gabetan ez dot lo askorik egitten, baiñe siestie egitten dot. Bestela, gustora nabil. Hori bai, hanketako miñe dauket, zutik lan egittera ohittu barik nauelako.

Zelako ogixek egitten dozue?

Ogi normalak egittiekin batera, zekaliekin, abena-kopuekin, multizerealak, integralak, gatz bakuek...

“Ahaleginddu gare lokal barrixe Maalatik gertu ipintten, eta Uarkapen gauz”

Dietistiengana juen, eta ogirik ez jateko esan dutzu.

Ogixe ez jatiarren ez litxakit ezer pasauko, baiñe ez dot uste hori erremedixue danik; dana neurrixen.

Zein da zeuen laneko gauza onena.

Ogixen useiñe.

Ze falta jako Mondraguei?

Etxebizitza merkiauek.

Eta ze dauko ona?

Oin ez jat okurriduten, baiñe horrek ez dau esan gure gauza onik ez daukonik. Kanpora juen biherko nitzake faltan ze igerten doten ikusteko.

Kapritxo bat.

Ez dakit ba... Bakaziñuek hartzie-edo...

NIREBIDAIAHURA/ Egoitz Unamuno

Indonesiara / Martxo amaieratik ekainera arte.

Indonesiara iritsi, eta lehenengo hilabetea egin zuten Balin Whiskas-ek, Muxi-k eta Etor-ek: “Hegoaldean geunden, eta han inguruan hiru hondartza genituen. Hondartza bat nahiko gertu geneukan, baina beste batera joateko, motorrean, ordu eta erdi behar genuen. Bi motor alokatu genituen, eta hantxe joaten ginen hirurok surfa egiteko taulekin batera”. Motorrekin badituzte hainbat anekdota: “Poliziek kon-tuz ibili beharra zegoen, gertzen gintuzten bakoitzean dirua eskatzen zigutelako. Eta, hobe zen ordaintzea, komisariara joatea zen-eta irtenbide txarrena. Hori bai, birritan harra-patu gintuzten ronarekin epelduta, eta ez ziguten ezer ere esan”. Zenbat bider joan ote ziren lurrera: “Askotan, errepideak ez zirelako onak. (Barre) Behin, motorreko giltza galdu nuen, eta diskoteka batean geundela, Etor etxera joan zen. Guk uste genuen oinez joan zela, baina motorra eramane zuen. Eta, Muxi eta biok diskotekatik irten, motor bat hartu (kasko eta guzti), eta bultza eginez diskotekako aparkalekutik urrundu genuen. Etxera iritsitakoan konturatu ginen motor hura ez zela gurea, ezta kaskoa ere; gure motorra etxean zegoen”. Hiru artista horiek ia egunero joaten ziren hondartzara: “Txalupa txiki bat alokatzen genuen, itsasoan barrura egiteko. Ordu mordera egiten genuen uretan, eta nekatzen ginenean, txalupakoari deitu eta hondartzara itzultzen ginen”. Kanpotarrekin baino gehiago, hango bizilagunekin moldatu ziren ondoen Whiskas eta konpainia: “Australiarrak euren kontura ibiltzen ziren, ez zen erraza euren lagun egitea, baina ahalegindu ere ez ginen egin. Eta, japoniarrak arraro samarrak dira. Baliko jendearekin moldatzen ginen ondoen”.

Horrekin batera, Debako hirukote batekin ere egin zuten bat: “Pertsonaia galantak haiek ere. Irtsi berri zirela ezagutu genituen, eta gurekin egin zuten moduan, guk ere eurei lagundu egin genien”. Jarraituko du.

XABIER URTZELAI



“Gaztetxoek ordu mordera egiten dituzte lanean, algak batzen”.

ZUBIZARRETA
LANTEGIAKGipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

EZETZASMATU



'ARRASATE ARGITAN' LIBURUA

Non dago argazkiko leihotxo berezi hori?
Arrastoa: Arrasateko etxe enblematikoetako bat da; erdialde inguruan dago.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

San Miguel garagardoa
12X25cl-ko packa

3,60€ 599 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AXIER GALLASTEGIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Axier!
Galderen erantzun zuzena:
Gazte Bulegoan edo Garibai etxean.

ARRASATEKOHISTORIA

Lantegietako lehengo bizimoduaren adibide bi

ARRASATE, KOOPERATIBA BATEN...

Lantegien inguruko bizimoduaren ezaugarriak nahikotxo aldatu diren seinale dira segidan jaso ditugun kontakizunak. Hasteko, *Isil-poltsa* zer zen gogora ekarriko dugu:
"Handitzeak soldata kobratzeko moduan ere aldaketa ekarri zuen. Hasieran dirutan eta asteen behin kobratzen zen, baina jende kopurua handitzean, aldean ibili beharreko diru kopuruak ere gora egin zuen; lerroak ere izugarriak izaten omen ziren kobratzeko egunetan eta errele-boka lan egiten zutenei ordaintzeko sistema asmatzea ez zen erraza. Langileen artean drama txiki bat suposatu zuen dirutan jasotzetik paper soil bat jasotzera pasatzeak. Hona hemen Gregorio Etxabek, orduko pertsonal buruak nola deskribatzen zuen egoera hura: "Lehenengo, astien behin kobretan gaixuan dirutan. Gero hamabost egunien. Gero pasau zuan hilabetera... Eta gero, gaiñera, papela, dirurik pez. Gero aber zelan ein leikien horreik tranpok eta ixilpoltsie eta zera. Dramak egon zien."
Ixilpoltsa da gizonezkoek soldatetik euren gastuetarako emaz-



'ARRASATE, KOOPERATIBA BATEN IBILBIDEA'

Hasieran, dirutan eta asteen behin kobratzen zuten langileek, baina jende kopurua handitzean, sistema aldatu behar izan zuten.

tea konturatu gabe hartzen duten dirua. Beste batzuek *sisia* ere ditzen diote.
Bankutik kobratzen hasi zirenean ere egon zen buruhausteren bat edo beste, emaztea konturatzeko diruarekin gelditzeko trinkimailu berriren bat asmatu

Langileendako drama izan zen soldata dirutan jasotzetik paperean jasotzera pasatzea

beharra egon zen. "Baiña gero bankura pasau zaniñ, domizializaziñora pasau zaniñ, hori izen zan kriston drama. Lana ein da dirurik ikusi bez, zela dok ba hau? Gaiñera tiratxo bat emuten auien, eta batek eitten auen apurtu, eta horren izenakin neuria

eruen, da "apurtu ein jat" beti andriari; baten soldatie eta bestien izena jarri, eta bestiak ba la ixilpoltsa".

Beste kontutxo bat ere jaso dugu *Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea* liburutik. Kasu honetan, alkohola edateko lantegietan zuten ohituraren gainekoa da. Halaxe dio:

"Sasoi batean ohitura normala zen lan orduetan ardoa edatea. Zerrajeran esaterako langileek bokadiloa etxetik eramaten zuten baina ardoa ugazabak ordaintzen zuten. Arrasaten ere bazen bokadilo zein bazkal orduetan ardoa edateko ohitura. Ventura Isasmendi atxabaltarrak piper pote zein ardo kaxak saltzen zituen bere lankideen artean hornitzailer lanak eginez. Hortaz gain garagardo makinak ere bazeuden, egun kafe makinak dauden moduan.

Urteak pasa ahala alkoholaren presentzia handituz joan zen, langile batzuk gaixotzeraino. Ardoa edatearen ohitura, ohitura txar bilakatu zen. Horregatik 1985. urtean neurriak hartu behar izan ziren, gaixo zeudenak Pancorvon zegoen klinika batetara bidali zituzten. Era berean, Arrasaten zein Fagor mailan alkohola edatea debekatu zen eta garagardo makinak kendu ziren".

Ferreriasko jaiak 2005

Uztailaren 26an:

09:00etan Etxafuegoak

12:00etan Txistularien kalejira

17:00etan Haur jolasak

17:30etan Txokolate-jana

19:00etan Txistularien kalejira

19:00etan Kaleko hildakoen aldeko meza

San Juan Batailatzailea elizan

21:00etan Herri afaria

23:00etan Musika, entzun eta dantzatzeko

Body piercing eta
tatuajeak



Ferrerias, 28 behe, B
Tel.: 943 79 92 84

Jovi

10.000
KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36, behe. Tel.: 943 79 12 87

**IRATI
TABERNA**


Ferrerias kalea
Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

N & N sol

Solarium
eta
estetika zentroa

Ferrerias kalea 28, behe ARRASATE
Tel.: 943 79 64 57

Ferrerriasko jaiak 2005



MERKEKILO

Oihalak
Gortinak

Ferrerrias, 5
Tel.: 943 79 15 00

CARMEN

Ile apaindegia
Solariuma

Ferrerrias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63




GORKa
ileapaindegia
peluqueria

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerrias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerrias 14
943 79 87 62



Etxe
mobiliario y
decoracion

Neska eta mutilentzako gazte moda



Ferrerrias 28 C. 943 77 12 54. ARRASATE



BASATI
TABERNA

DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

**OBRAK ETA
BARRUKO
PROIEKTUAK**

Ferrerrias, 17
Tel. eta faxa:
943 79 03 17
ARRASATE

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko uztailearen 22a

390. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarr@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

CECILIA OBONO ETA JOSÉ MARI SARASUA/HIRUATX TALDEKO KIDEAK

“Ekuatore Ginea osoan saltzeko oilaskoak haziko ditugu Hiruatxen laguntzarekin”

MIRARI ALTUBE

Afrikatik etorri da Cecilia Obono gure artera, lanera etorri ere. Jose Mari Sarasuaren etxean dago, eta hilabete egingo du oiloen gaineko guztia ikasten. Izan ere, gero bere herrian, Mitemeleten, erakutsi beharko die zela hazi. Hiruatxek irailean emango digu proiektuaren berri; bitartean, hona aurrerapena Ceciliaren eskutik eta Jose Mariaren laguntzarekin.

Nondik etorri zara?

Ekuatore Gineako Mitemelete herrikoa naiz, Evinayong barrutikoa, hain zuzen. 150 biztanle inguru ditu gure herriak.

Zertara etorri zara?

Ikastera. Gure herrian oilategiak jarri gura ditugu abian; horretarako, oiloek zela txitatzen duten ikasi behar dugu eta txitok eduki ostean zela hazi. Oikinan egon naiz inkubagailuak ikusten, Baraibarren jateko oiloak zela hazi ikusten, eta Santestebanen ugaltzeko erabiliko diren oiloek zer behar duten ikasten.

Zuk, gero, zeure herrikoei erakutsi beharko diezu?

Bai, noski, ugaltzeko oiloekin arduratuko den taldearen erantzule izango naiz ni. Era berean, jateko izango diren oiloek arduratuko den taldeari erakutsi behar diot zela egin lan.

Oiloendako oilategiak eraikita dituzue?

Lehenengo oilategia dagoe-



neko eginda daukagu eta zortzi hilabete barru guztiak izatea abian gurako genuke.

Eta gero non salduko dituzue oilasko horiek?

Ekuatore Ginea osoan, hiriburuan izan ezik; izan ere, hiriburu, Malabo, alboko uharte baten dago, hegazkinean joanda ordu erdira. Oilaskoa da gehien jaten

dugun okela, eta orain arte kanpotik ekartzen digute. Gure asmoa hilean 30 mila oilasko ekoiztea da.

Aretxabaletarren laguntza beharko dute, Jose Mari?

Bai, Mundukidek abian jarritako proiektu handi baten barruan dago oilategien ekimena. Mundukideren helburua kooperatiba bat eratu eta abian jartzea da: energia ateratzeko prozesua, pentsua egitea eta oilaskoak hazi ostean hil eta komertzializatzea. Guztira 31 lanpostu sortuko dituzte, eta 248 nekazari inguru izango dira kooperatibako bazkide.

Hiruatx elkarteak proiektu handi horretako zati txiki batendako batuko du dirua, %18rendako gutxi gorabehera, eta aretxabaletarrei irailtik aurrera eskatuko diegu laguntza. Udalari ere eman diogu gure proiektuaren berri.

Zein epe jarri duzue?

Hiruatxen proiektua bukatzeko bi urteko epea jarri dugu, eta 120 mila euro batzea da helburua. Gero eurek jarraitu beharko dute lanean.

Proiektuak aurrera egin bitartean joango zaie hemendik inor laguntzera?

Bai, horixe, aldiro joaten naiz neu, eta azkeneko egon nintzenan beste bi lagunekin joan nintzen. Enpresa eta kooperatiba zela kudeatu erakutsi beharko diete adituek; izan ere enpresak abian jartzea da kontua, eta hemen ez bada samurra, pentsa han...

Hortaz, Hiruatxek Ekuadorren egin duen antzera...

Bai, baina Gineako oilategi horiek askoz azkarrago jarriko ditugu abian: lur ona, ur asko eta eguzki ona daude.

ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK



ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Abuztuaren 1etik 5era zabalik
10:00etatik 13:00etara

Irailaren 1ean, berriz ere bueltan

Ondo ibili Andramaixetan!

Agintaldi erdiko egoeraren eta egindako proiektuen berri udal politikarien eskutik

MIRARI ALTUBE

Bi urte pasatu dira udalak eratu zirela, erdia hain zuzen, eta orain arteko lanaren gaineko balorazioa

egiteko garai egokia da. Bi urte joan dira, eta tarte horretan hasita zeuden proiektuak bukatu, berriak abian jarri eta hurrengo urteotako kudeaketa planak egi-

teko astia izan dute alderdietako ordezkariak. Oraindik, gainera, bi urte dituzte aurrez aurre beste horrenbeste proiektu eta ekimen antolatuta eta bideratzeko.

Gogora dezagun EAJk sei zinegotzi dituela, tartean alkatea; Aralarrek hiru, laugarrena ez zuelako hartu; eta Ezker Batuak, PPK eta PSE-EEK bana. Aretxa pla-

taformak, bestalde, bi ordezkari lortu zituen, baina oraindik ezin izan du aukirik hartu. Gobernu batzordea EAJk, Aralarrek eta Ezker Batuak osatzen dute.

ARRITXU OLIDEN/ALKATEA ETA EAJ-KO ORDEZKARIA

“Badatoz proiektuak, baina bailarako ekimenak ere indartu behar ditugu”

Orain arte egindakoari gainbegiratu botatzeko garaia da. Eta proiektu batzuk badatoz, nahiz eta poliki etorri. Badatoz kultura etxea, musika eskola, liburutegia eta gaztelekua. Lehentasuna eman diegu, gainera, bai inbertsioetan, bai esfortzuan. Agintaldi bukaeran, bestalde, herriko kultura dinamika indartuta ikusi nahi nuke, horrek helburua lortu dugula esango luke-eta. Eguneroko lana eskatzen duten beste proiektu batzuk ere hasi dira gauza-



tzen: Urkulun utzikeria baztertuaz naturaren kudeaketarako modua finkatu, Tokiko Agenda 21, hezkuntzari dagokionez


hitzarmena sinatu 0-3 adin tarterako herri eskaintza integratua eskaintzeko...

Bestalde, bailarako herrien artean hainbat arlotan integrazioerantzko urratsak eman ditugu. Gero eta gai gehiago daude herria gainditzeko dutenak, eta ezinbestekoa da bailara ikuspegitik lantzea indarrak batuz: kultura ekitaldietako saiakerak, garraio publikoaren bailarako arazoari Mankomunitatea hasi da aurre egiten... Nire gogoia da halako ekimenak gehitzea eta indartzea.

IÑAKI ITURRI/ARETXA PLATAFORMA

“EAJri borondatea falta zaio eta Aralar kontraesanetan erortzen da”

Bi urte bete dira udal ez-demokratikoa eratu zela Aretxabaletan, ez baita herritarrek emandako bozen arabera eratu. Egoera ez-demokratiko hau gainditzera bidean Aretxa plataformak Hauteskunde Araudiaren 182.2 artikulua aplikatzeko proposatu zien Udaleko alderdi abertzaleei. Hau da, eserleku hori betetzen duenak dimititu egiten du, atzetik doazen beste zerrenda-kideek ere dimisioa aurkezten dute eta zerrendak aurkeztu dituzten indar politiko-



ek plataformako kide bat proposatzen dute zinegotzi izendatzeko. Proposamenak ezetza jaso zuen EAJ eta Aralarren aldetik. Ondo-

ren, Eskoriatzako adibidea jarraituz hainbat baldintzaren arabera gure parte-hartzea bideratzea onartu genuen. Dena den, baldintzak ez ziren bete.

Orokorrean uste dugu EAJri egoera gainditzeko borondatea falta zaiola eta Aralar kontraesanetan erortzen dela, Gobernuan parte hartzen jarraitzen baitu, nahiz eta publikoki behin baino gehiagotan adierazi ez zuela Gobernuan parte hartuko ez bazen bideratzen Aretxaren parte-hartzea Udalean.

JAIME MUXIKA/EZKER BATUA

“Proiektu garrantzitsuak ditugu herrian guztion artean bideratzeko”

Ezker Batuak zinegotzi bat dauka Udalean eta oso esperientzia atsegina izaten ari da. Gure helburua Udalean sartzea zen ordezkari finkatzeko, eta horretan gabiltza. Herriaren etorkizunari begiratzen diot arduratu egiten nauelako, batez ere, gazteek dituzten arazoei: ikasketak, aisialdia, lana, etxebizitzak, kultura...

Hirigintza Sailean jarritzen dituzten beste alderdi batzuekin batera, eta geldirik ez dagoen saila da. Etxebizitza sozialak direla, babes



ofizialeko aurrez finkatutako preziodunak direla... Hurrengo urteotan aretxabalarrek izango dituzten beharrei eman gura

diegu erantzuna. Bestalde, egia da daukagun lur apurra bukatuko zaigula.

Beste proiektu garrantzitsu batzuk ere baditugu; autobidea, esaterako. Nik neuk ez dut batere gogoko kalte handiak eragingo dituelako mendi, auzo eta ingurumenean. Debagoieneko herriak hobeto lotzeko jarri gura diguten tranbia ere hor daukagu.


Hortaz, proiektu garrantzitsuak ditugu herrian, kontu handiz eta herritar eta zinegotzi guztion artean bideratzeko.

SILVIA CAMPORRO/PP

“Interes politikoen alde baino gehiago herritarren alde egin behar da lan”

Lehenengo eta behin, Lesan, orokorrean orain arteko agintaldiari dagokion balorazioa kudeaketaz ari garenean ona izan dela. Agerrian dago udalbatzarreko kideak gazteak direla, eta hori ona da Aretxabale-tarendako.

Bestalde, nabarmendu gura dut udalbatzarrak alderdien eta interes politikoen alde baino gehiago herritarren eta orokorrean herriaren interesen alde egin beharko lukeela lan. Sarritan zein den



zein baino abertzaleagoa lehiaketa bihurtzen da Udaleko politika, eta horrek geldotu eta oztopatu egiten ditu herriaren

garapenari dagozkion proposamenak. Oso osasuntsua da nortasuna izatea, baina garrantzitsuagoak dira hezkuntza kalitatea (izan ere, bizitza honetan euskara ez da guztia), osasun-zerbitzuak, Aretxabaleako bizilagunen ongizatea, hirigintza garapen moderno, etxebizitza duina eta guztion eskura dagoena, herritarren arteko bizikidetzaren eredu izatea... Neure ustean, behintzat, aretxabalarren alde egin dezakegun gutxiena da.


TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

IRIARTE
Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA


Ezkututu
TABERNA
ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA
Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

XABIER SARASUA/ARALAR

“Lana emaitzak ematen dabil, baina denon Udala gura dugu”

875 herritarren mandatuari jarraituz, aretxabaletarren alde lanean ari gara, gutxiengotik ezkerrekoa eta abertzalea den udal politikarantz eragiten saiatuta.

Bestalde, Aretxarearen bazterketa gainditzeari buruz, gure saiakera guztien ostean, EAJri uda amaitu arteko azken epea eman diogu.

Lehen urtea ikasteko urtea izan zen guretzat. Bigarrean lan handia egin dugu geure ardurapeko sailetan, eta pozik gaude: kultura etxe berria, Euskara Biziberritzeko Plana, Agenda 21, Aste Berdea, Udaltzaingoa osatu eta berrantolatatu, animaliak eduki eta babesteko udal ordenantza, Gazteria Saila sortu, irailean funtzionatzen hasiko diren Gazteleku probisionala eta musika taldeentzako entsegu gelak...

Gai hauetan ere urrats inportanteak eragin ditugu: babestutako etxebizitzak, alokairua bultzatzea, hiltegi publikoaren etorkizuna bermatzea, garraio publikoa



hobetzea, autobide batzordea sortzea, herriko bidegorria osatzea...

Aurrera begira, ordea, asko daukagu egiteko: auditorioa, kirol instalazioak, kultura dinamika berriak abiatzea, herri elkarteak indartzeko programa... Eta erronka bat: herritarrengana gehiago gerturatzea eta haien beharrei hobeto erantzutea.

Aretxabaleta Abesbatzak emango die hasiera aurten Andramaixei

M.A.

Opor giroan sartuta gabiltza, baina herriko jaiak ezin ahaztu. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza dakartzate; pregoia, esaterako, Aretxabaleta Abesbatzak egingo du. Bestalde, txosna-gunea indartu egin gura izan dute eta ekitaldi ugari egongo dira bertan.

Abuztuaren 14an hasi eta 17ra bitartean Andramaixak ditugu herrian, eta Kultura Sailak eta Jai batzordeak egitarau dotorea osatu dute.

Bi omenaldi ekitaldi egingo ditu Udalak. Batetik, Aretxabaleta Abesbatzak 25 urte bete dituela eta jaiari hasiera emango die abuztuaren 14an, 19:00etan; bestetik, Agustindar elkarteak 100 urte egin dituelako Aretxabaletan esker ona adieraziko dio Udalak abuztuaren 15ean mezaren ostean.



Umeak jaietan beti gustura, eta aurten gazteek ere badaukate zela pasatu ondo.

Umeek antzerkiak, jolasak eta musika izango dituzte eta gazteek ekitaldi ugari txosnagunean: rock kontzertuak, karaoke eta play-back saioak, lasterketak, makarroi jana eta beste hainbat. Datorren astean banatuko dute egitaraua.

CARMEN ATXUTEGI/PSE-EE

“Mozioen bitartez herritarren arazoei erantzungo diegu”

Ardura handiarekin ikusten dugu Aretxabaletako agintari abertzaleendako herritarren arazoak ez direla lehentasun politiko. Horren ordez, egunegun erradikalagoa den abertzaletasun baten ametsetan dabilta. Eta ikusten dugu legez kanpo dauden plataformen mozioak aurkezten dituela Gobernu batzordeak.

Guk herritarren beharrei erantzun gura diegu: oztopo arkitektonikoak ezabatu (udaletxean bertan ere bai); zirkulazioaren eta aparkalekuen arazoak ikerketa sakona egin; ospitale berri baten beharrene aurreko jarraera azaldu erabiltzaile gehiago daudela ikusita; Jaurlaritzak babesten duen hiltegiaren itxieraren aurrean Gobernu batzordeak duen jarrera (antzeko hirukoarekin); guztion dirulaguntzak jasotzen dituzten komunikabideetan elebitasuna ziurtatzea legeak dioen bezala (hasi Konstituzio eta Esta-



tututik eta Euskararen Erabilerraren Legera arte).

Udala kudeatzen duen hirukoaren utzikeriaren aurrean gure asmoa da mozioak aurkeztuko ditugun etapa bat hastea aipatutako arloen jarduna suspertzeko, nahiz eta oposizio zinegotzioi ez jarri baliabiderik, ez fisiko, ez ekonomikorik.

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABAleta

Only
aretxabaleta

Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABAleta
Tel.: 943 79 04 39

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABAleta

Lie

LURRINGEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAleta

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta
Tel.943 77 00 33/79 42 56

MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABAleta
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

ATREBENTZIAEZPADA/ Oporretan ataraten dittuzu erretratuek? Eta egunkarixetako lehiaketetara bieldu?



AINHOA ARKAUX
Ikaslie



GERARDO IZQUIERDO
Langillie



MIREN ARANTZABAL
Langillie



ESTEBAN GASCUE
Langillie



EMI SANCHEZ
Langillie



ENKARNI SAN JULIAN
Langillie

Ez, oin arte gurasuekin fan izen naz, eta ez dot atara izen. Lagunekin faten naze-nien, egunen bat pasetan, ataraten dou, baiñe lehiaketetara bieldu ez. Horreik erretratuok geuretako die.

Bai, asko ez dittut ataraten, baina batzuk bai, umiei batez be. Egunkarixetako lehiaketetara ez dot sekule pentsau be egin bielketarik; etxerako izeten die, norberak gordeteko.

Bai, paisajiei batzuetan, umiei beste batzuetan... Nun gauzen arabera. Oin arte ez dot bieldu izen lehiaketetara, baiñe ataratako erretratuek ikusi ostien iguel animauko naz.

Ez, ez dauket ohitturarik erretratu kamarie ibiltteko, eta gaiñera ez dakit ataraten, ez behintzet onak. Hori bai, lagunekin fan izen naz eta gero kopixak ataraten dutzet harek ataratakuei.

Bai, danetik atarateko ohitturie dauket: paisajie, umiek... Baiñe ez dot pentsetan lehiaketetara bielketako besteko onak die-nik; etxequondako gorde-ten dittugu.

Bai, ataraten dittut, bai bisittauteko parajiei, bai umiei. Lehiaketetara bielketako ohitturarik, ostera, ez dauket. Azken baten, ez die horren onak izeten, eta bai oso personalak.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK UMEAK OSO GUSTURA Benetan pozik eta gustura ibili dira ume eta gaztetxo gehienak Udaleku Irekietan. Urtero antolatzten ditu Kultura Sailak eta urtero elkartzen dira 200 ume inguru; aurten 205. Txangoak Ojala Zeilara, Galartzara edo Landara; San Fermin Eguna, Euskararen Eguna, jokoak eta eskulanak... Zer ez dute egin... Gaur esan diete agur azken eguneko jaiarekin. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Ez zituzten antolatu Portasolgo jaiak

Portasolgo jaiak ospatzen zituzten Loramendi kale inguruan San Lorentzoren omenez. Uztail-erdi inguruan izaten zen hori, eta Portasolgo lagunak artean antolatzten zituzten. 2002ko uztailan, baina, ez zen talderik sortu eta ez zituzten antolatu. Ordutik hona ez dute San Lorentzori ospatu.



ASTEKODATUA

57.162

EUROKO AURREKONTUA DUTE ANDRAMAIXEK

Gertu dauka Udalak Andramaxetako egitaraua, eta 57.162,77 euro erabiliko ditu horretarako. Gastu handiena pilota partiduek dute, 8.000 euro. Suzko erruberek, bestalde, 3.400 euro.

BESTEKEESANA

“Koadrilen arteko futbol txapelketa jai bat baino gehiago futbol txapelketa soil bat izan da, baina oso ondo pasatu dugu bertan. Gainera, zortea izan dugu eta finala jokatzera heldu gara, baina azkenean, justu-justu izan bada ere, ezin izan dugu irabazi. Datorren urtean berriz parte hartuko dugu, ea orduan irabazten dugun.

ROBERTO ETA GORKA
'Asteleheneko Goienkaria'/06-07-18

Oso esperientzia polita izan da, gainera, hirugarren bukatu dugu. Lehenengo aldiz antolatzeko nahiko ongi irten da, eta hurrengo urteetan ere horrela izatea espero dugu. Hori bai, ea parte-hartzaile gehiago izaten diren. Jendea animatu nahi dugu.

UNAI ETA ADRIAN
'Asteleheneko Goienkaria'/06-07-18

HERRITARRENBERBAK/ Jon Molina



Kirtenkeriak amairik ez...

Mendekua ez da jarrera kristaua, ez da jokabide gizatiarra; are gehiago, esango nuke ergelkeria dela, umekeria. Baina... zer egingo zenikete egun-pasa mendira joan, afari-merienda prestatzen hasi eta, hamaika hildako eta hamahiru mila hektareako baso saila erre duen sua piztu duen *domingo-roari?*

Niri behintzat -barkatuko didazue- ez zait tripetatik sentimendu gozorik ateratzen. Gizon-emakumeok kirtenkeriarako daukagun gaitasuna amaigabea omen da, baina sute honen inguruko gorabeherek nire harridurarako gaitasuna erabat gainditu dutela aitortzen dut.

Dena den, gertatutakoaren errua ezin zaio bete-betean turista burugabe bati egotzi. Lotsagarria eta negargarria izan da suteari aurre egiteko erabili dituzten baliabideen pobrezia. Hogei kilometro luzeko frontea izan du suak;

hala ere, ez zegoen ez basozain prestaturik, ez nahikoa suhiltzailerik, ez behar hainbat hegazkinik... Eta hori guztia Espainian, urtero ehunka sute izaten diren Estatuan. Honez-keru antolakuntza hobea behar zuten izan! Guadalajaran uholdeetarako prestakuntzarik ez izatea normala da, baina suteetarako?

Edonola ere, beste behin, izadiari bizkarra emanda bizi garela nabarmen gelditu da. Arazoa kulturala da. Latza, gainera. Gure planeta hau agortzeko zorian dago, baina ez dirudi

ezer egiteko asmorik daukagunik. Hazkunde ekonomikoaren zenbakiak gora egiten duten bitartean ez da inor ikaratuko, ez horixe. Bost axola geroak. Gure seme-alabek ezingo dute antxoarik jan -geuk jan ditugu denak- eta gainontzeko ondasun guztiakin ere gauza bera egiteko zorian gaude.

Egia da, bai, gure kirtenkeriarako gaitasunak amairik ez du.

“Sute honen inguruko gorabeherek nire harridurarako gaitasuna erabat gainditu dutela aitortzen dut”

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 219. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Jon Berezibar • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udal jabetzako lurretan etxe tasatuak egiteko adjudikazioa abiarazi dute

JON BEREZIBAR

Udalaren jabetzako orubeetan etxebizitza tasatuen eraikuntza eta kudeaketa egiteko lehiaketa deitu du Udalak berak. Interes berezia du Udalak etxebizitzaren arazoa, eta egungo beharrak jakiteko, aurki ezagutzera emango den inkesta egin du.

Joan den egubakoitzeko ezohiko osoko bilkuran atera zituen Udalak Santa Marinako lurretan dituen orubeak lehiaketa publikora. Horrekin, etxebizitza tasatuen eraikuntza sustatu eta auzo-ingurunearen urbanizazioa bulzatu gura du.

Aldaketa garrantzitsuak izango ditu Santa Marina auzoak datozen urteetan. Jakina da han 145 etxebizitza eraikiko dituztela eta horrek urbanizazio lan itzela dakarrela, baita erreka bestaldeko orubeetan ere. Izan ere, erreka guztia bistaratu egingo da eta Santa Marina plazan hiltegi zaharra eta etxebizitzak eraitsiko dituzte, han plazar bat egin gura dute-eta. Lan horietarako Zubizarreta eta Olabarri lantegiak botako dituzte. Lurrei dagoeneko, orube zabalak dira eta aipatutako 145 etxebizitzak eraikiko direla dio Udalak. Tasatuak,



Santa Marinako eraikinak bota eta plazar berria egiteko asmoa du Udalak.

gutxienez, 28 izango dira, baina uneotan kopurua handitzeko negoziatioetan dabilta, eta horien prezioa 180.000 euro izango da. Udalaren orubeetan eraikiko dituzte etxeok, Arbiñoste ostean. Hirigintza planetan 1982an aurreikusten zen hori, baina 1999an kooperazio publiko-pribatu sistema ezarri zen eta

*Eraikitzaileak
Udalak ezarritako
baldintzak bete
beharko ditu etxe
tasatuetan*

ordutik hona datoz aldaketak. Hortaz, lehiaketa irabazten duen enpresak udal partzela horiek erosi eta ezarritako baldintzetan etxebizitzak eraikitzeaz gain, inguruen urbanizazioaren kudeaketa ere hartu beharko du bere gain, eta, hala baderitza, lanak azpikontratatu. Jarduera hori ohikoa da Eskoriatzakoaren

moduko udal txikietan, kudeaketarako baliabideak ez direlako nahikoak izaten.

Etxebizitzak bi urte barru eman gura ditu Udalak, baina zozketa ziurrenik "datorren urtean-edo" egingo dutela dio Juan Carlos Bengoa alkateak. Hala eta guztiz ere, promotoreak hasi dira dagoeneko Udalarekin negoziatioetan. Aipatzekoa da Izartu programak lagunduta bideratuko direla etxebizitza tasatuei dagoen urbanizazio lanak.

ETXEBIZITZA BEHARRA

Ekimen horren harian, Bizilan enpresak Eskoriatzako etxebizitza beharrei buruzko inkesta egin berri du. Udalak hirigintza plan berriak diseinatzeke herrian dauden beharrak ezagutu gura izan ditu, eta inkesta 150 eskoriatzarrri egin zaie.

Emaitzak hil amaieran jakinaraziko dituzte. Datu horiek edukitzeari garrantzia eman dio Udalak. Izan ere, aipatutako etxebizitza tasatuen salmentarekin eskuratutako diruarekin etxe gehiago eraiki gura litzukete. Beraz, berrinbertsio hori zelan bideratuko den inkestan bildutako informazioak zehaztuko luke, eta hortik aterako litzateke etxebizitza sozial, tasatu eta libre-en beharrezko kopurua herrian.

Mendiola auzoen topaketa egin zuten zapatuan Abadiñon

J.B.

Mendiola auzoa ez omen da bakarra Euskal Herrian, ez behintzat izenez. Horregatik, joan den zapatuan, bost Mendiola auzoek topaketa egin zuten Abadiñon. Han izan ziren Eskoriatzako ordezkariak.

Abadiñoko Mendiola auzoko jai batzordeak gonbidatuta joan ziren gainontzeko mendiolatarrak topaketara. Eskoriatzakoekin batera,

Baztan aldeko, Gasteizko eta Orozkoko ordezkariak joan ziren bertara. Guztira bost Mendiola batu ziren Abadiñon euren izenkideak ezagutzeko prest.

Ezpatadantzariak egin zieten harrera, eta haren ostean, diapositiben bitartez nor bere auzoa aurkeztu zien *auzokideei*. Josu Agiriano izan zen hemengo ordezkaria, eta haren berbetan, "Abadiñoko eta nafarra nahiko antzerakoak dira, mendi inguruetan daude". Guztietatik ezberdina

Gasteizko Mendiola omen da. "Topaketa polita izan zen", dio Josuk, "eta jendea ezagutzeko balio izan digu, antzerako auzoak, eta abar".

HERRIKO ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETA

Harreraren ostean bazkaria egin zuten, guztira 80 bat lagunek, Eskoriatzako hiru mendiolatarrak kontatuta. Haren ostean, herri mailako artzain txakur lehiaketa ikusteko aukera izan zuten Eskoriatzatik joandako ordezkariak.



Oroigarri bana oparitu zieten Abadiñokoek bertara hurbildutako ordezkariak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deliak	112

OHARRAK

IBARRAUNDI MUSEOKO DVD-A SALGAI DAGO

Dagoeneko salgai dago Ibarraundi museoari eta Eskoriatzari buruzko DVD-a. Prezioa 6 euro izango da. Halaber, museoak zabalik jarraituko du uztail amaierara arte.

1955EAN JAIOTAKOAK

Bizkaiko kostaldera txangoa egingo dute irailaren 24ean. Euskadiko Kutxan 50 euro sartu beharko dute interesa dutenek.



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Musika eskola eta haur eskola eraikitzeaz dira

J.B.

Beharra ikusita, haurtzaindegi publikoak eraikitzen hasiko dira datozen asteetan. Oktogonoen eraikinean egingo dute, eta bertan egon den musika eskola museo eskola zaharreko sotora eramango dute. Musika eskola irailean zabaldu gura dute eta haurtzaindegia urtarrilerako amaitu.

Lehenbailehen dira musika eskola berria egokitzeko lanetan hasitekoak. Gaur egun Luis Ezeiza eskolako oktogonoetan dago Eskoriatzako musika eskola, baina haur eskola publikoak zabaldu gura du Udalak hantxe. Horregatik, lehen museo eskola zegoen sotoan egongo da musika eskola irailetik aurrera.

Lan biak, haur eskola eta musika eskolakoak, ia batera hasiko dira, eta bigarrena irailean ikasturteari ekiteko gertu izango dute. Irail erdialderako nahi dituzte musika eskolako lanak amaitu, eta ohiko egunetan hasiko dituzte klaseak. Hori da, behintzat, Udalak hartutako konpromisoa. Guztiz egokituko dute lehengo museo eskolako sotoa, ezindu fisikoendako sarrera eta guzti. Igogailu bat

ipintzea ere badago asmoen barruan, baina bizilagunekin ez du akordiorik lortu Udalak. Dena dela, badaezpada ere, igogailurako lekua utziko dute.

Haur eskolako lanei dagokienez, laster hasiko dituzte eta abuztuan lanean jardungo dute. Amaitu, berriz, urtarril aldera amaitu gura dute. Aspaldidanik izan da herrian haurtzaindegi publikoak izateko eskaera eta oktogonoetan egitea ikusi du Udalak egokien. Aurrekontua 300.500 euro da.

Bestalde, bi berrikuntza horiek ez dira bakarrak izango. Izan ere, ludoteka, helduendako hezkuntza zentroa eta bake epaitegiko lanak amaitzen dabilta egun hauetan. Halako azpiegituretan aurten egin duten inbertsioa 600.000 euro pasatxo izan da. Osasun etxearen eraikinean egingo dituzte ludoteka eta helduendako hezkuntza etxea.

Musika Eskola irailean ikasturteari ekiteko gertu egongo da Museo eskola ohian



Amaitu dira aurtengo udalekuak

Bukatu diren arren, gustura ibili dira aurten neska-mutikoak eta begiraleak. Guztira 180 haurrek eman du izena aurten. Hain justu ere, gaur amaitu dira udaleku irekiak eta sekula baino irteera eta ekintza gehiago egin dituzte. Mendia, natura, txangoak... Benetan pozik daude antolatzaileak geletatik kanpo makina bat ekintza egitea lortu dutelako. Besteak beste, Degurixa aldean gaua pasatzen egon dira. J.B.

Kiroldegiko zoruko lanak amaitzeaz daude

J.B.

Udan Intxaurtxuetako kiroldegia erabilera txikitu egiten dela aprobetxatuta, berritze lanak hasi zituzten joandako astelehenean. Kantxetako zoruak da konpontzen dabilta eta lanekin datozen asteetan dira amaitzekoak. Azken pausoa zoruaren bernizadura izango da.

Areto futbol eta saskibalo kantxen zoruak dira konponduko dituztenak, oso higatuak zeuden-eta. Orain dela 10 urte eraiki zuten Intxaurtxueta kiroldegia eta orduetik hona kantxek ez dute konpon-

ketarik izan. Urtetako erabilerak eta zaintze urriak benetan kalte dute behagaina. Guztira zoru osoaren % 20 estaliko dute egur berriarekin, eta behin lurra lixatzen amaituta, bernizadurarekin bukatuko dute.

Eraiki zenetik egiten diren lehen berritze lanak izango dira, eta 36.000 euroko aurrekontua izango dute konponketetarako. Aurreko asteko astelehenean ekin zieten lanei, eta amaitu, berriz, datorren asterako amaituko dute, guztia behar moduan badao.

Azkenean, marrak margotuko dituzte futbol eta eskubalo kantxetan, saskibaloiko hirurak eta badmintonekoak banatzeko.



Datozen egunetan amaituko dituzte kiroldegiko lanak.

DEIANE ARRIETA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko uztailaren 22a / 160. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Santi Kurutz Abadearen plaza eraldatu egingo da etorkizunean

UBANE MADERA

Herrirako aurreikusitako urbanizazio egitasmoen ondorioz, besteak beste, Santi Kurutz Abadearen plazaren eskuma aldean dagoen etxea eraitsi egingo dute, bota. Haren lekuan, Iturrosteko etxebizitzetarako bidea egitea da asmoa.

Ordenazioz kanpo dago argazkian ikusten duzuen etxe hori. Horren ondorioz, etorkizunean eraitsi egin behar dutela jakinarazi digute Udaletxetik.

Behin hori egin ostean, gero handik pasabidea egingo dute Iturrosten eraikiko dituzten etxebizitzetara joan-etorria egiteko.

Edozelan ere, oraindik guztia zehaztu barik dago. Hau da, oraindik ez dute egin etxea eraisteko proiekturik eta ondorioz, ez dago inolako datarik zehaztuta.

ALDAKETA GEHIAGO

Horrez gainera, herriaren sarrera ere dezente eraldatu da eta eraldatuko da azken hilabeteotan. Eraikitzen dabiltzan etxebizitzek eta haiekin batera egiten dabiltzan urbanizazio-lanek ematen diote itxura berritua.



Argazkiko etxe hori bota egingo dute, ordenazioz kanpo geratu delako.

Horrekin lotuta, aurrera begira aldaketa gehiago ere ikusiko ditugu han inguruan. Oraindik zehazteke dagoen arren, bada-biltza-eta kale hura Matxain kalearekin lotzeko dauden aukerak aztertzen. Dena dela, kasu horretan ere, ezer ere erabaki barik dute, oraingoz behintzat.

UDALETXEAN, LANAK BERRIRO

Eta Hirigintza kontuekin bukatzeko, hilabete gutxi barru, berriro ere lanak ikusiko ditugu Udaletxean. Izan ere, Diputazioak teilatua konpontzeko dirulaguntza onartu du bere Plan Foralean. Datorren urtean hasiko dira lanak egiten.

Oporretako istripuengatik odol beharrean dira

U.M.

Arabako Odol Bankukoek dei egiten diete herritarrei, odola emateko. Besteak beste, istripu gehiago izaten da sasoi horretan eta odol beharra handia da. Abuztuaren 3an Aramaion izango dira odol-ateratzeak egiten.

Ohi duten moduan, arratsalde egingo dituzte odol-ateratzeak Aramaion, 16:30etik 20:30era, anbulatorioan.

Horrez gainera, aste berean Legutianon izango dira odola ateratzen eta uztailaren bukaeran eta abuztuaren hasieran, Fagorrek Arrasateko San Andres auzoan duen lantegian.

GASTEIZEN, EGUNERO

Horrekin batera, Arabako Odol Bankuko erizain Isabel Vitoriak gogora ekarri digunez, hitzordu horietara joan ezin direnek Gasteizko Santiago eta Txagorritxu ospitaletan eman dezakete odola; ia egun osoan dute horretarako aukera: Santiago erietxean, 09:00etatik 21:00ak arte, astegunean. Txagorritxu ospitalean, berriz, 08:00etatik 19:30ak arte astegunean, eta zapatuetan 08:30etik 14:30ak arte.

ISTRIPU GEHIAGO

Izan ere, abuztuko opor garaian, odolarekin "larri samar" ibiltzen direla jakinarazi dio Arrasate Irratiari Isabel Vitoriak; batetik, auto-istripu kopurua dezente handitu egiten delako, eta horrek odol beharra handitu egiten duelako. Eta bestetik, istripuez gainera, ospitaletan gaixo hematologikoak daudelako eta haiek egunero behar izaten dituztelako odolaren osagaiak. Eta gainera, emaile asko oporretan dagoelako.

ODOLAREN IRAUPEN TXIKIA

Hain zuzen ere, odolak duen arazoetako bat da ezin dela denbora luzean gorde, iraupen txikia duelako: "Odolak ez du asko irauten. Plaketek bost egun irauten dute eta globulu gorriek, berriz, 25 egun".

OPORRETARA JOAN AURRETIK

Horregatik guztiagatik, Arabako Odol Bankukoek eta oro har, Euskadiko Odol Bankukoek dei egiten diete herritarrei odola emateko: "Herritarrei gogorarazi nahi diegu denok behar izan dezakegula odolaren osagaien bat edozein momentutan. Beraz, ahal izanez gero, oporretara joan aurretik odola eman dezaten eskatu nahi diegu".

HERRITARRENHITZA/ Arantza Ibane • Langilea

Transgenikoak: kontsumitzaileon eskutik at

Heldu da jada ia danok urte osoan espero izaten dugun urteko sasoi, bai eguraldiagatik bai oporregatik. Batzuek gurago izango dute neguko hotza eta laneko errutina. Egia da bai, aurtan sekulako beroa egiten duela munduko gure bazter honetan. Baina pentsa dezagun negua ere hor ariko dela ate joka iraila pasatu bezain pronto, eta tira-tira, ahalik eta beranduena etor dadin gurako nuketik behintzat.

Udan oso ohikoa izaten da beroa dela eta ez dela, janariak eragindako gaitzak edukitzea salmonela, kasu. Zentzu horretan kontu handiz jokatu behar

izango dugu nahiz kontsumitzaileok nahiz ostalariek. Izan ere, ez da batere atsegina norabait joan eta horrelako zer edo zer gertatzea.

Elikagaien gainean ari naizela, kontsumitzaileon eskutik at dagoen zerbait etortzen zait burura ia beti: transgenikoaren auzia, hain zuzen.

Izan ere, ez gaude batere informatuak arlo horretan ene ustetan; autoritateek bestaldera begiratzen dute transgenikoei



"Atsedendaldi ederra izan dezazuen opa dizuet denoi"

dagokienean. Erosle xumeok, eta ez Greenpeace-ko beste talde ekologista baten jarraitzaileak, supermerkatuaren joaten garenean ez dakigu aukeratzen dugun produktua natural-naturala edo transgenikoa den. Ez dakigu benetan zenbaterainokoa izan daitekeen kaltegarria gure

osasunerako eta baita gure ingurumenerako ere. Mundu osoko autoritateek eskuak garbitzen dituzte eta transgeni-

koek munduko goseari irtenbidea emango diotela diote. Jakina da, ordea, munduan dauden goseteak ez direla janari kopuruan oinarritzen gizarte okzidentalak eragindako injustizia sozialetan baino. Egia esan, orain mundu osoko gaitz guztien oinarria da hau, Londreseko atentatutik hasita. Hobe genuke, osasunaren arloan legetxe gizarte mailan ere sintomak estaltzera joan beharrean zuzenean sustraietara joko bagenu.

Uda hausnartzeko garai proposa dela jakinda, atsedendaldi ederra izan dezazuen opa dizuet danoi. Ondo-ondo izan!

LABUR

Abuztuko hitzorduen artean: Postal Lehiaketa

Txirritola Euskara Elkartek Postal Lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko postal bat aukeratu, euskaraz berba batzuk ipini eta, honako helbidera bidali behar da: kultura etxea, Nardeaga z/g. 01160, Aramaio. Irabazlea irailan aukeratu dute, eta sari moduan, bi pertsonandako landa-etxe batean asteburua oparitu dute. Bestalde, irailerako txalaparta ikastaroa antolatu dute. Egunak, lekua eta ordua jendearren arabera zehaztuko dute. Izena tabernetan eman behar da.

BOTEPRONTOAN/ Jon Ugarte · Herriak eta Mendiak agentziako kolaboratzailea

“Neguan Pirinioetan elurrarekin lotutako ikastaroak egiten ditut, eta udan Alpeetan ibiltzen naiz”

Oporrak datozela-eta, mendizaleendako proposamena egin digu Jon Ugartek. Besteak beste, Gipuzkoako Mendi Federazioko begiralea da orain dela hamar urtetik eta gidari lanak ere egiten ditu:

Norako proposamena duzu?
Gure proposamena da mendira joatea. Euskal Herrian aukera asko daude eta inguruan ere bai: Pirinioetan eta Picos-en. Eta beste aukera on bat eta horrenbeste ezagutzen ez dena da Alpeetara joatea. Automobiler egun batera dago, 1.000 kilometrorra, baina aukera zoragarriak eskaintzen ditu hilabete baterako. Oraingo autobideekin-eta, Aramaiotik Chamonix-era joatea 12 bat ordu dira.
Zela egiten dituzue bidaiek?
Gu beti joan izan gara gure kasa, autoz edo trenaz, Chamonixera. Eta Chamonix bakarrik ez. Alpeak oso handiak dira, Euskal Herria baino handiagoak; hortaz, han mendigune asko daude: Cervino-Monte Rosa aldera Oberland-Eigher inguruak... Kanpinean joateko eskaintza handia dago, karabanan joateko ere bai... Oso ondo dago. Eta badaude, baita ere, antolatutako bidaiek, agentziek-eta antolatutakoak: Nik daramat urte batzuk kolaboratzen Mendiak eta Herriak agentziarekin, Felipe Uriarte mendizaleak sortutako agentziarekin. Udan gidari moduan ibiltzen gara. Nik, normalean, udan bidaia bat edo bi egiten ditut. Aurten egokitu zait hiru aste egitea. Bestalde, Alpeek aukera piloa eskaintzen dute. Ibilaldiak egitea, adibidez. Esate baterako



“Azken uda hauek tontorrek egiteko ez dira izan hain onak, bero handiegia egin du-eta”

nik egin ditudanak eta oso politak direnak dira: Mont Blancoko eta Monte Rosako tourrak. Dira zortzi eguneko ibilaldiak, motxila bizkarrean hartuta eta leku baten hasi, mendi osoari buelta eman eta zortzi egunen ondoren, leku berera bueltatu. Egin dudana ibilaldi politenetarikoa da. Joera izaten dugu mendi tontorrek egiteko, eta hori ere polita da,

“Mont Blancoko tourra egingo dugu abuztuaren 4-13an; joango gara 15 lagun, neu gidari”

baina hori baino politagoa da mendiari berari buelta ematea. Esaterako, Mont Blancokoan pasatzen zara Frantzia, Italia eta Suitzatik. Monte Rosakoan, Suitza eta Italiatik. Bailara batetik besterako aldaketak oso politak dira, mendiak ikaragarriak dira eta nahiz eta mendi bera etengabe ikusten joan, perspektibak asko aldatzen dira. Ibiltzeko errazak dira, mendi-

bideak, oso markatuta daude, nahiko jende ibiltzen da eta mendi-aterpeen aukera ona da. **Gainera, gidariekin doaz...** Bai. Jendeak bere kasa ere egin dezake. Baina gidari batek abantaila ematen dizu, esate baterako mendi-aterpea erreserbatzeko (abuztuan Alpeetan ez da horren erraza lekua aurkitzea) edo bidean eta inguruan dauden leku politenak aukeratzeko... Jendeari lagundu eta ibilbideko gauzarik interesgarrienak erakusten dizkiegu. **Baldintza bereziak behar dira halakoetara joateko?** Monte Rosako eta Mont Blancoko ibilaldiak egiteko, zapatila gogorak edo bota arinak besterik ez da behar. Pasatzen diren altuerak dira 2.600 metrokoak-edo, ez da glaziarrik-eta zapaltzen eta ez da inongo arriskurik. Nik lau urtean egin dut eta ez da sekula ezer pasatu. Arrisku bakarrak dira babak sortzea, orkatila okertzea... Beste kontu bat da mendian gora joatea: Mont Blanc, Cervino... Bakoitzak ikusi behar du zein maila duen eta zeintzuk diren egoerak. Esaterako, azken uda hauek tontorrek egiteko ez dira izan onak, bero handiegia egin du eta elur jausi arriskua, izotza jaustekoa... daude. Iraila da oso hilabete ona. Urtero Alpeetan jendea hiltzen da, baina normalean behar ez diren gauzak egiteagatik, esaterako, Mont Blanc igo beharra derrigor. **Zer egin behar da zuek antolatutako ibilaldietara joateko?** Gure taldeak itxita daude, baina Mendiak eta Herriak-en beti daude beste aukera batzuk: www.mendiaketaherriak.com.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Guruzte Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuziako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabiliz gura badute, bezperan ditut beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

EGUAZTENEAN, OSOKO BILKURA EGINGO DUTE

Oporretara joan aurretik, azken osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Jakinarazi digutenez, bestelakoan artean, Haurreskolarekin lotutako proiektua landuko dute zinegotziek. Horrez gainera, musika ikasketekin eta eskolarako garraio zerbitzuarekin lotutako dirulaguntza banaketa egingo dute eta zenbait kultur elkartek egindako eskaerak aztertuko dituzte. Eta horrekin batera, Durako-Gain mendiko baso-aprobetxamendurekin lotutako lehiaketa irekia zabaltzea erabakiko dute, besteak beste. Betiko moduan, 18:00etan hasiko da batzarra.

OPORRETARA GOAZ

Guri ere iritsi zaigu oporretara joateko garaia. Eskuetan duzuen hauxe izango da azkeneko alea. Dena dela, oporretatik bueltatzen zaretenerako geu hementxe izango gara, irailaren hasierako lehen alea preparatzen. Ordura arte, ondo ibili oporretan, edo behintzat, ahalik eta hobeen aprobetxa itzazue.

Abuztuan, auzoz auzo, jairik jai ibiltzeko aukera

U.M.

Abuztuan hemen inguruan gelditzen direndako, herriko hiru auzok jaietan ibiltzeko aukera ematen dute: abuztu hasieran, Uribarrin San Esteban jaiak ospatuko dituzte eta Barajuenen eta Olaetan, berriz, Andramari jaietan murgilduko, abuztuaren erdialdean.

San Esteban jaiak abuztuaren 3an eta 4an izango dira. 3an, eguerdian meza eta gauean dantzaldia izango dituzte. Horrez gainera, Mus eta Briska Txapelketak hasiko dituzte. Abuztuaren 4an ere izango da meza eta karta-jokoaren finala jokatuko dute. Arratsaldean, berriz,

plater-tiroa izango da eta umeendako puzgarriak. Bukatzeko, gauean afaria egingo dute.

BARAJUENEN ETA OLAETAN

Abuztuaren erdialdean, Barajuenen eta Olaetan izango da jai. Barajuenen, besteak beste, meza izango da Andra Mari egunean eta umeendako jokoak eta karta-jokoak ere izango dira. Hurrengo egunean, besteak beste, meza eta auzotarren bazkari eta afaria izango dira.

Olaetan, berriz, hiru egunetako egitaraua prestatu dute. 15ean, besteak beste, 13:30ean, Andra Mari taldeak dantza saioa egingo du eta 18:00etan umeendako antzerkia izango da. 16an, emakumeen lanen erakusketa izango da eta 17:00etan Gardokiren musika.



Olaetan, 15ean hasi eta 17ra arte izango dituzte jaietako ekitaldiak.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 16. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorlora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

AINARA OLABARRIETA ETA BALEN VALOR/UDALEKUETAKO BEGIRALEAK

“Gaztainuzketan parranda ederra egin genuen; dantzan, geratu barik”

XABIER URTZELAI

Ainara Olabarrieta eta Balen Valor ibili dira bi astez gaztetxoekin hara eta hona, udalekuetan. Martitzenean izan ginen eurekin, eta Armentiarako bidean harri-patu genituen, zaldietan ibiltzeko asmoz.

Nondik nora zabiltzate?

Armentiarako bidean, Araban, baina galdu samar gabiltza, ez dakit iritsiko garenean. (Barre) Koadrila polita etorri gara, 18 neska-mutiko daude, eta baita hainbat guraso ere. Hasiera baten, gaztetxoek dute zaldietan ibiltzeko asmoa, baina ez dakit gurasoren bat animatuko ez ote den.

Ekintza mordoa egin dituzue orain arte; zer moduz?

Oso ondo, gustura gabiltza. Joan den urtea lehenengo urtea izan zen guretako, eta oraingoa bigarrena denez, esperientzia handiagoa daukagu. Ekintzak hobeto prestatu ditugula esango nuke, eta gaztetxoekin ere konfiantza handiagoa daukagu. Gainera, urtean zehar ludotekan ibili gara, eta guztiak ezagutzen ditugu ondo; baita eurek gu ere.

Egin dituzuen ekintza guztien artean, zeinek izan du arrakasta handien?

Gaztainuzketako mendi-etxetan gaua igaro genuenean ederto ibili ginen, a zelako parranda!!! Afaldu aurretik ezkutaketan ibili ginen jolasten, eta afaldu eta gero, gau guztia egin genuen dantzan; lo egin bagenuen ez zen orubete baino gehiago izan. Gurasoak 10:00etarako etorri ziren, eta arratsalde hartan kamisetak egin behar genituen!!!

Oraindik, baina, baduzue zerekin entretenitu.

Bai, bai. Bihar (eguztana), ur-gudua egingo dugu; joan den urtean ederto ibili ginen. Uretako pistolak, globoak... Seguru aurten ere iturri barruan amaituko dugula.

Gatzagako udalekuek duten abantaila?



XABIER URTZELAI

“Aurten esperientzia handiagoa dugu, eta konfiantza handiagoarekin ibili gara”

Gazte guztiek elkar ezagutzen dutela, eta lasai asko ibil daitezkeela kalean. Horrekin batera, gurasoek ere esku hartzen dute udalekuetan, eta hori Gatzagan bakarrik gertatzen da.

Eta desabantailak?

Inguruan paraje ederrak daude, baina umeek igerilekuetara edo Landara joan gura izaten dute, eta horretarako automobila behar da. Akaso, hori da gauza txarrena, hainbat ekintza egin ahal izateko kanpora joan behar dugula.

“Adin bakoitzaren arabera ekintzak antolatzea izango litzateke aproposena”

Amaitzeko, zelan hobetu Gatzagako udalekuak?

Akaso, talde gehiago egin beharko genituzke, adina kontuan hartuta. Kontua da orain guztiak ibiltzen direla batera, haurrak eta gaztetxoak. Eta aproposagoa izango litzateke banaketa egin, eta talde bakoitzean adinaren arabera ekintzak egitea. Hori izan daiteke hobetze aldera egin daitekeen zerbait, baina taldeak txikiagoak izango lirateke; hori ere kontuan hartu behar.



Argazkian dagoen eskuinaldeko horma botako dute errepidea zabaltzeko.

Hodiak sartzeaz gain, autobus geltokia egin gura dute

X.U.


Irailean hasiko dituzte herriko urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartzeko lanak, eta lan horiek aprobetxatu gura dituzte Gatzagako goiko sarrerako errepidean ere hainbat lan egiteko. Alkateak eman digu horren berri: “Behin mendi batek su hartu zuen, eta suhiltzaileen kamioiak zailtasun handiak izan zituen herri barrura sartzeko. Horrekin batera, ura

hartzeko orduan ere, ur-harguneak oso presio txikia zuen”. Urhartune berriak jartzearekin batera, hodi berriak ere sartuko dituzte, baina lanak ez dira hor bukatuko: “Errepidea zabaltu gura dugu, eta horretarako, behetik gora eginez gero, eskuinaldean dagoen horma botako dugu”. Errepide zati berriak hainbat erabilpen izan ditzake. Herrirako sarrera hobetzea izan daiteke bat, baina autobus geltokia da herri-tarrek gura dutena.



Udalekuak amaitzeko, Dorletara

Udalekuak amaitzeko kanpaldia egingo dute asteburuan Dorletan. Kanpaldi hori, baina, ez dute begiraleekin egingo, gurasoekin baizik. Hala, Gurelekoen asmoa da udalekuak egun pare batez luzatzea. Zapatuan afari-merienda egingo dute Bengoe-rrekan, eta gero abiatuko dira Dorleta aldera. / X.U.



Ondo ibili!



ANDRAMAIXAK

ABUZTUAK 14, 15, 16 eta 17



Aretxabaletako
Udala

*Aretxabaletako Udalak Andramaixa
zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar
eta bertara hurbiltzen zareten guztioi.*